




Gerra Zibilaren eta bonbardaketen biktimak oroituko ditu asteotan Erandioko Udalak. ▶5



Pop-rock eta punk-rock gaua, Portu Zaharrean, Hesian eta Reincidentes taldeakaz. ▶13

hiruka

Uribe Kostako astekaria



93. zenbakia
2017ko
maiatzaren 4tik
maiatzaren 10era arte

argi hizki ak²⁰¹⁷

© HAMAR ARGAZKI HAUEK COPYRIGHT-A DAUKATE



SAKONEAN GETXO

Gutiziak ala hilgarriak



Getxoko Basozaleak Elkarteko Mikologiko eta Botanikoak 150 perretxiko- eta landare-espezia jasotzen dituen gida kale-ratu du, mendira eroatekoa. ▶22-23

KULTURA LEIOA

XVIII. Umore Azoka, ate joka

Mundu osoko 50 konpainiaren 150 ikuskizun eskainiko ditu maiatzaren 18tik 21era arte Leioako Umore Azokak. ▶11

Hasi da lehiaketa

Testu laburren Argihizkiak lehiaketa martxan da, seigarrenez. Eskualdeko 10 argazkilarik helarazitako irudietan oinarritutako diren testuak hilaren 31ra arte bidal daitezke. Iazko irabazleak akordura ekarri ditugu, aurtengo betebeharrak azaldu... Zuen literatur sormenen begira gaude! ▶11, 14-15



Itzubaltzeta gaztetxeko kideakaz sinatutako akordioa beteko duela baieztatu du Getxoko Gobernu Taldeak. ▶2

Sopelak 250.000 euro inbertitutako ditu herriko 30 argindar-koadro konpontzeko; beste 26ak, 2018a baino lehenago. ▶7

Nekazaritza eta Artisautza Azoka izango da domekan Berangon, Simon Otxandategi elkarteak antolatuta. ▶8

Udara begirako umeentzako udalekueetan izena emateko epea zabaldu dute eskualdeko udalerrri askok. ▶5-7-8-9

Itzubaltzeta gaztetxearen lana goraipatu dute udal-taldeek



Joan den apirilaren 19an erre ziren Errekaganeko pabiloiak.

Gazteakaz hartutako konpromiso denak beteko dituela esan du Gobernu Taldeak; PP horren kontra agertu da.

Itzubaltzeta gaztetxeko kideek egindako lana babestu dute Getxoko Udalbatza osatzen duten ia alderdi politiko denek, PPK izan ezik. Joan den apirilaren 19an erre ziren gune autogestionatua hartzen zuten pabiloiak, eta udal talde gehienek adierazi dute eraikin berri bat eraiki-

tzea gustatuko litzaiekeela, popularrek proposatutako ibai-parkearen aurretik. Koldo Iturbe EAJren bozeramaile eta Kultur zinegotziak adierazi duenez, «gazte horiek egindako lana estimu handian dago auzoan», eta gazte horiek hartutako «konpromisoa» berretsi du: «sinatu duguna beteko dugu». Era berean, proiektuaren izaera «autogestionatua» goraipatu du. Oier Iturralde EH Bilduko zinegotziak ere gazte horiek babestu ditu, «aberastasun soziokulturala sortzen dutelako inguru horretan». Gainera, Paula Amieva GUK taldeko bozeramailea inguru horretan

gaztetxe berri bat eraikitzearen alde agertu da. Popularrek, berriz, gazte horiei «pribilegioak» ematea deitoratu eta proiektu horren «xahutzea» salatu dute. Iturbek gogoratu duenez, pabiloiak berreskuratu eta birgaitu ahal izanez gero, ideia da erabilera mistoa izatea: zati bat gaztetxea kudeatzen duen gazte kolektiboarentzat, auzokideakaz bizikidetzarako marko orokorra adostuta; eta beste zati bat Udalaren erabileretarako. Hori egin ahal izateko, gobernu-taldeak jakinarazi du udal teknikariak txosten bat prestatzen dabiltzala, inguru horren egoera

urbanistikoa eta lurzoru horren etorkizuna zehazteko.

Imanol Landa Getxoko alkateak azaldu duenez, inguru horren erabilera ekipamendu publikotzat dago sailkatuta Hiri-Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO). Era berean, pabiloiak erosi eta horiek hiri-ingurunera egokitu eta estetikoki doitzeko konpromisoa dagoela gogoratu du.

Borrokan segitzeko konpromisoa

Joan den apirilaren 23an, zapatuan, Itzubaltzeta/Romoko AEK euskaltegia zena okupatu zuten 50 bat gaztek, gaztetxe baten beharra aldarrikatzeko. Itzubaltzeta gaztetxearen kolektiboak ekintza «sinbolikoa» aldarrikatu zuen, «Itzubaltzetak gaztetxe bat behar eta izango duelako, borrokan jarraituko dugu!». Itzubaltzeta gaztetxeko kideek azaldu dutenez, gaztetxearen aldeko borroka oraindino bizirik dirauela erakutsi gura izan zuten. Modu berean, azkeneko egun hauetan «herrian nagusitu diren emozio txarrak irauli eta borrokaren aspektu positiboak» azpimarratu gura izan zituzten.

Okupazioa Kalamua kaleko 11. zenbakiko eraikinean egin zuten, 1985etik 2003ra bitartean AEKko Ganbara euskaltegia izandakoan. Gaur egun eraikina hutsik dago eta bertan 8 turismo-apartamentu eraikiko dituela iragarri du Residencial Kalamua 11 SL enpresak. Haiz zuzen ere, sozietate horrek erosi zion eraikina AEKri iazko udan. ◀

Udalerriko etxebizitza hutsak zenbatu eta zentsatuko dituzte

Udalerriko etxebizitza hutsen zentsua osatzeko 70.000 euroko kreditu gehigarria onartu du Getxoko Udalbatzak, Gobernu Taldearen (EAJ eta PSE-EE), EH Bilduren eta Ciudadanosen aldeko botoakaz; PP eta GUK taldea kontra agertu dira, gastu hori «beharrezkoa ez» delakoan. Helburua da diagnostiko eguneratua egitea udalerrian dauden etxebizitzaren egoera errealearen inguruan, fenomeno horren benetako irismena zehazteko, eta haren ezaugarriak eta egoera juridikoa ezagutzeko, besteak beste.

Bestalde, apirileko osoko bilkuran beste kreditu gehigarri bi onetsi ziren: bata, 150.000 eurokoa, komunitateko kuota ordaintzeko laguntzetarako,



ohiko etxebizitza daukaten eta errenta maila txikiak dituztenentzat; eta bestea, 140.000 eurokoa, Algortako Euskal Herria kalearen eta Alango kalearen arteko gurutzearen bidea berrantolatzeko. Azken hori inguruko bizileku-garapenean sartzen den jarduketa da. ◀

GetxoBizi sistemaren erabilera nabarmen handitu zen iaz

GetxoBizi bizikletak maileguan emateko eta modu seguruan apartatzeko udal zerbitzuaren erabilera nabarmen hasi zen 2016an, Getxoko Udalak jakinarazi duenez. Guztira, 2.954 mailegu eman ziren iaz, hau da, 2015ean baino %74 gehiago. Hartara, bataz beste, 87 bizikleta-mailegu eman ziren eguneko 2016an. Zerbitzuaren erabilera nabarmen hazi bada ere, Udalak erabiltzaileak erakartzeko eta zerbitzuren berri emateko kanpaina bultzatuko du. Hala, maiatzean kale-antzerkiko saioak egingo dira; 5 minutuko antzezpenak izango dira, Utopianeko antzerki eskolako ikasleek eskainiko dituztenak. ◀

info+: hiruka.eus/getxo

PPren «alarmismoa» salatu dute udal-talde politiko gehienek

Getxoko Udalbatzako alderdi politiko denek, Ciudadanosek izan ezik, PP kritikatu dute «alarmista» izatea-gatik, eta erantzukizuna eskatu diote, «existitzen ez den arazorik sortu ez dezan». Popularrek «umeen parkeetako segurtasun arazoak» konpontzeko mozioa aurkeztu zuten apirileko osoko bilkuran, bertan gazteen arteko borroka egon ohi direlakoan. Alderdi gehienek hori kritikatu zuten, ez baitute ulertzen gertaera puntual bat modu «alderdikoi» erabiltzea. EH Bilduk, PP kritikatu ostean, udalbatza aretoa utzi zuen. Keltse Eiguren Herritarren Segurtasuneko zinegotziak adierazi zuen «haur parkeak seguruak direla eta ez dagoela salaketarik» horri lotuta. ◀

Getxo

San Inazio parkea hobetu guran

Eraldaketa gauzatu ahal izateko, inguruko auzokideen iritzia jaso gura du Getxoko Udalak. Auzoz Auzo programa erabiliko dute horretarako.



Proiektuan joko-eremuak berritzea aurreikusita dago.

Neguriko San Inazio parkeko umeen jolas-eremua, oinezkoentzako ibilbideak eta argiteria publikoa egokitu eta hobetuko ditu Getxoko Udalak. Horretarako, auzokideen iritzia jaso gura dituzte, inguru horretan sustatutako Auzoz Auzo partaidetzarako programaren bitartez. Aurreikusitako jardueren berri ematen duen informazio eskurria argitaratu eta hori parkearen inguruko etxebizitzetako gutunontzietan banatzen dabilta. Horretan, gainera, auzokideek euren iradokizunak eta ekarpenak idatzi ahal izango dituzte, ondoren, maiatzaren 15era arte parkean bertan egongo den buzoian sartzeko. Webgunearen bitartez ere parte hartu ahal izango da.

Proiektuan joko-eremua berritzea aurreikusita dago; hala, gaur egungo 121 metro koadro izatetik 265 metro koadro izatera igaroko da. Tresna

berriak izango ditu: zabu irisgarria; ume txikientzako zabua, askotariko jolaserako multzo bi, eskalatzeko elementua, malguki bakuna, malguki bi-koitza eta HABI jesarleku duen zabua. Informazio-kartel bat ipiniko da bertan, elementu bakoitza erabiltzeko adin aproposak adierazteko.

Proiektuak argiteria publikoaren sarea berritzea ere aurreikusten du, luminaria berriagaz, energia-aurrezpen handia eragingo duena; oinezkoentzako ibilbideak egokitzea irisgarritasun arauaren arabera, eta gune horretako altzariak berreskuratzea, horien balioa nabarmentzeko. Proposamenak parkearen jatorriko estiloa eta diseinua gorde gura ditu, baita bere elementu bereziak ere, hau da, eserlekuak eta aipatutako oinezkoentzako ibilbideen diseinua. Azken horietarako, Basagoiti etorbidean erabilitako material berberak proposatu dituzte. ◀

Uraren hornidurako sifoiak ordezkatu du, Fadura parean

URA Uraren Euskal Agentziak Gobela ibaiaren ibilgua zeharkatzen zuen sifoiak kendu du, Al-gortako Fadura kiroldegi parean. Azaldu dutenez, horrek ur hustea eragozten zuen ur-goraldietan, eta ubideari orain gutxi eman zaion zabaleragaz ez zeterren bat. Horren ordez, lurperatutako hodi bat ipini dute, Getxo eta Berango urez hornitu ahal izateko. ◀



© GETXOKO UDALA

Inguru naturaletan sugedorriak daudela baieztatu du Udalak

Egunotan sare sozialetan bolo-bolo ibili da sugedorri batek 65 urteko andre bati eraso egin diola Azkorri inguruan. Getxoko Udalak jakinarazi duenez, sugedorri seoane (*vipera seoanei*) Kantauriko endemismoa da, bertokoa eta berezkoa da. Nahiz eta askorik ez dauden, ohikoak dira Getxoko kostaldean, baso, lahardi eta ibaiertzetan.

Azaldu dutenez, askotan aurki daitezke txilardien eta otadien gainean eguzkia hartzen. Azken urteotan animalia mota horren populazioa ez da areagotu. Espezie iheskorra da, eta ez da ohikoa jendea erasotzea. Halaber, azaldu dute babestutako espeziea dela; hartara, guztiz debekatuta dago horiek harapatzea edo hiltzea. ◀

Lekualdatzearen kontrakoak, nagusi

Ibar Nagusien Etxea Romo Kultur Etxera eramatearen aurkako hautagaitzak irabazi ditu hauteskondeak.

Itzubaltzeta/Romoko Ibar Nagusien Etxea elkarteko zuzendaritza-batzordea osatzeko hauteskondeak egin ziren joan den apirilaren 24an. Horietan, nagusien etxea lekualdatzearen kontrako hautagaitzak bozketan ipinitako sei lekuak lortu zituen. Hartara, zuzendaritza-batzordearen ordezkartitza osoa lortu du hautagaitza horrek. Lortutako emaitza horregaz, nagusien etxea Romo kultur etxe berrira lekualdatzearen aldeko eta kontrakoek arteko berdinketa apurtu da. Azken horiek azaldu dutenez, elkartearen «demokratizazioaren» alde egin gura dute. Era berean, elkarteko kide denentzat «irekita» dagoen zuzendaritza-batzorde bat eta «auzoari zabalik dagoen nagusien etxea» gura dutela aldarrikatu dute. Horrez guz-



tiez gainera, lekualdatzearen inguruko galdeketa bat egitea gura dute, Ibar Nagusien Etxeko kide guztien artean. Izan ere, salatu dutenez, orain arte «ezinezkoa» izan da hori egitea, bi aldeek arteko berdinketaren aurrean, «presidentearen kalitatezko botoak ezinezkoa egiten baitzuen galdeketa hori aurrera eramatea». ◀

info+: www.hiru.eus/getxo

hiruka
zaitez!

Urtean
35€
baino ez

Trukean:
zozketak,
sariak ia astero,
astekaria eguazteno...

kartelgintza **inprimategia** **kopisteria**

SARTU GURE WEB BERRIAN **www.cianoplan.es** **902 103 763**

cianoplan
GLOBAL PRINTERS



Zulotik

ARMANDO
LLAMOSAS RUBIO
Kultura ondarearen teknikaria

Erromoko zahar-etxea, eztabaidarik gabe

Ondarea zer den guk sortzen dugu. Ez dago zalantzarik. Balora daitezke, aroa, edertasuna, esfortzua, forma, identitatea... Hortaz, askotan, eztabaidak zailak dira. Hasieran, jakin behar dugu zergatik baloratu den; eta aspektu guztiak baloratu badira. Erromoko zahar-etxea adibide ona da, bai aztertzeke, bai eztabaidatzeko. Ondarea dela aldarrikatzen da; Udalak, ordea, bota nahi du; grina arrazoiak baino gehiago. Eraikina zaharrenetarikoa da, 1935ean eginda ei dago. Atzokoa da, baina Erromon dena da atzokoa. Erromok ikur asko galdu ditu: ibaia eta trena, muga zirenak; lantegiak, ahaztuta; hezegunea, etxez beteta; hasierako etxeak, ia desagertuta... Eliza, etxe merkeak, eta eraikin solte bat besterik ez dago. Beraz, ulergarria da auzokideek ikur hori mantendu nahia, oso adierazgarria ez izan arren, gutxi dago eta.

Udalak, Erromoko kultur etxea eginda, bota nahi du, VPOak egiteko, antza. Aldarrikapena onargarria da (guztiak dira), baina oportunistak ezin da izan, nostalgia, jubilatuen lekua, etxe gutxiago nahia, ondarea, identitatea... hori dena mahai gainean jarri behar da, ondo baloratzeko dagoena, gal litekeena eta irabaz litekeena.

Udalak, aitzitik, baloratu behar ditu bere arrazoiak, ulergarriak ere: errentagarritasuna, arazoak kendu, ekipamendu berria, gastua murriztu... Debatean, baldin badago, funtsezkoa da zer jarri eta zer galdu. Galduko da ondarea, txikia izan arren, nortasun ikurra, oso garrantzitsua ez izan arren, eraikin bitxia, oso ona ez bada ere... Gutxienekoa nostalgia eta aprobetxamendu politikoa izan behar da.

Gakoa: bere ordezkari jarri dena, galduko eta irabaziko dena. Debaterako gai ederra, benetako debateak inoiz ez agertu arren. ◀

Getxo

Topaketa feministak

Emakume Abertzaleon Topaketa Feministak

Berriozarren egingo dira, zapatuan. Algortan ere aurkeztuko dituzte.

Emakume Abertzaleon VII. Topaketa Feministen aurkezpena egingo du Algortako Bilgune Feministak egunean, maiatzaren 4an. Horretarako hitzordua 18:00etan ipini dute, Algortako Bidebarri kaleko Abian kultur elkartean. Topaketak zapatuan egingo dituzte, hilaren 6an, Berriozarren (Nafarroa Garaia), Bilgune Feministaren 15. urteurrena ospatu eta aurrera begirako urratsak partekatzeke asmoz. Hori dela eta, «Indar bat gara gu» goiburupean, egun bateko topaketa antolatu dute, urte hauetako ibilbidea konpartitzeko, ospatzeko eta aurrera begira,



Bilgune Feministak Berriozarreraino joateko deia egin du. © EHB

Euskal Herriaren burujabetza feministak helburu hartuta, erronka berrietan sakontzeko. Goizean mahai-ingurua izango da, arrastian tailer ugari eskainiko dituzte, eta gauean jaialdi feministak emango die akabua topaketei. Besteak beste, trantsizio feminista eta

«botere(tze)a» izango dituzte eztabaidagai. Modu berean, honelako galderei erantzuten ahaleginduko dira: «Nola ikusten dugu feminismoa Euskal Herrian?», «Nolakoa da feministik sortu nahi dugun boterea?». ◀

info+: 15urte.bilgunefeminista.eus/



Abalak martitzenera arte eman daitezke. © PP

Raquel González Bizkaiko PPrent presidentegaia da

Raquel González Díez-Andino Getxoko zinegotzi popularrak bere hautagaitza aurkeztu du, Bizkaiko PPrent presidentea izateko. González lehiatuko da Nerea Llanos galdakaoztarragaz. Getxoztarraren iritziz, Llanos izan da Antón Danborenea orain arteko presidentearen eskumako eskua eta, hala, «proiektu kontinuitate» dauka. Ostera, Gonzálezek bere burua aurkeztu du Bizkaiko PPrent «alde berritzailearen eta ilusioaren» ordezkariatzat, «ikuspegi guztiz eraikitzaile batez». Marisa Arrue Getxoko alkategaia izandakoak eta Carlos Iturgaiz eurolegebiltzariak babesa adierazi diote. ◀

Udal-euskaltegian lanpostu bat amortizatu gura dute

Getxoko Udalak udal-euskaltegi-ko lanpostu bat amortizatzeke asmoa dauka, datorren ikasturte-hasieran, urri aldera. Hala baieztatu du Koldo Iturbe Euskara zinegotzi eta Getxoko Kultur Etxearen presidentea. Izan ere, azkeneko udal-erakunde horrek «ezinbestekoa du administrazio orokorreko teknikari-lanpostu bat sortzea». Iturbek azaldu duenez, Espainiako erreposizio-tasari jarraituz «ezin daiteke lanpostu berri bat sortu, beste bat aurretik desagerrarazi barik». Hala ere, «amortizazioa emango da erretiro baten aurrean, beraz inork ez du bere lanpostua galduko», argitu du.

Horren berri eman dio daborduko langileen komiteari. Getxoko Udal Euskaltegiko irakasleek ez dute ondo hartu iragarpena. Hala, Irakasle Batzak idazki bat bidali zien Kultur Etxeko arduradunei, erakunde horren hileko batzarrean euren parte-hartzea eskatzen. Xiberu Etxebarria irakasleak dioenez, Koldo



Iturberen ezetza jaso zuten, «hori ez zela lekua eta edozer negoziatzeko langileen komitearen bitartez egin beharra dagoela» esanez. Etxebarriak gogoratu du 1985ean sortu zela euskaltegia, 20 irakasleak. Gaur egun 17 daude, lanpostu bat amortizatu zelako eta beste bi trebakuntza-lanetara bideratu zirelako. Irakaslearen esanetan «17 langileentzako lanik ez da falta izan». Matrikulek gora eginez gero, trebatzaileek berriro irakasle-lanak egin ahal izango dituztela aurreratu du Iturbek. ◀



AIXERROTA BHI IKASTETXEA

Batxillergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)

Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

Erandio

Omenaldia eta oroitzapena

Biktimak oroitzeari ekin dio Erandioko Udalak, herriak pairatu zituen bonbardaketen 80. urteurrenaren harira.

Pasa den apirilaren 25ean, omenaldia egin zieten Gerra Zibilaren eta bonbardaketen biktima izan ziren erandioztarrei. Plaka bat ipini eta aureskua dantzatu zieten 1937ko urtarril eta ekainaren artean gutxienez hil ziren 31 auzokideei, zauritutako beste 69ri eta Gerra Zibilan zendutakoei eta izandako beste biktima denei, horiek omentzeko. Ekitaldia Altzagako Ibarra kaleko 6. atariaren ondoan egin zuten, matxinatuen aldeko hegazkinek 80 urte lehenago bonbetako bat jaurti zuten leku berean.

Erandioko Udalak antolatutako omenaldiagaz bat egin zuten 1937ko bonbardaketetatik bizirik irten ziren auzokide batzuek, Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak, Erandioko udal-talde denek eta hainbat auzokidek. Datozen asteotan ekimen gehiago izango dira, biktimak oroitarazteko. Erandioren gai-

nean hamaika bonbardaketa burutu zituzten matxinatuen aldeko hegazkin italiarrek eta Legion Condor alemaniarrek, 1937an: urtarrilaren 3an eta 7an, apirilaren 6an eta 22tik 26ra, maiatzaren 13an eta ekainaren 14an. Denera, ehun biktima izan ziren hildako eta zaurituen artean, kalte ekonomiko handiak jaso zutenak eta etxe barik geratu zirenak kontuan hartu barik.

Bestalde, Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak zerrenda bat osatu du frontean edo fusilatuta hil zituzten eta desagertuta dauden erandioztarren izenakaz. Ia 90 izen dira eta oraindino dokumentazio-lan hori osatzen dabilta. Egokiñe Angulo Euskara zinegotziak gogorarazi zuen Erandio, Durango, Gernika eta dozenaka euskal udalerri «Francok aginduta» bonbardatu zituztela, 1937an. Kezka agertu zen Gernikan ez bezala Erandion gertatutakoa-



Udalak laster plaka aldatuko du, errotulu-enpresak egindako akats ortografiko bat konpontzeko.

ren ezagupen eskasa dagoelako. Bere ustean, «bada garaia gure bikote, familia, auzokide eta abarren artean daukagun informazioa zabaltzeko, gure herriko memoria gogorarazteko eta horrela gure identitatea osatzeko. Gure amama eta aititengandik jasotako informaziotik hasita, gure seme-alabei transmititu dezakegunera». Udalak 22 auzokide-komunitateri eskatu die baimena, fatxadan eta atarian ditzuten plaka frankistak kentzeko.

Bestalde, Juan Mari Zulaika plataformako kideak adierazi zuen «oraindino gutxi da egiten dena, baina egiten den guztia eskertzekoa» dela. ◀

Ekimen batzuk

Maiatzak 12, barikua

Udalak 74 erandioztarri gutun bana bidaliko die, euren lekukotasuna eskatzeko. Pertsona horiek bizirik irten ziren bonbardaketetatik eta garai hartan gutxienez 10 urte zituzten.

Hilaren 22tik ekainaren 9ra

Gerra Zibilaren gaineko *Nunca más!* erakusketa ipiniko dute ikusgai Josu Murueta kultur etxean.

Maiatzak 25, eguena

Sabino Arana Fundazioaren berbaldia, euskaraz. Ekainaren 8an beste bat izango da, gaztelaniaz, Aranzadi elkaratek emanda.

Udalekuetan izena eman daiteke barikura arte

Erandioko Udalak udaleku irekiak antolatu ditu Erandion erroldatuta dauden neska-mutilentzat; ekimenean parte hartu ahal izango dute 2010 eta 2013 urteen artean jaiotako umeek. Udalekuak ekainaren 26tik uztailaren 28ra izango dira, 09:00etatik 13:00etara, 5 txandatan banatuta: ekainaren 26tik 30era eta uztailaren 3tik 7ra, 10etik 14ra, 17tik 21era

eta 24tik 28ra. Udalekuak egingo dituzte Altzagako eta Astrabuduko ludoteketan eta Erandiogoikoko Gizarte Etxean. Izen-ematea maiatzaren 5era arte egin daiteke, 09:00etatik 14:00etara, Erandioko Behargintzan eta Astrabuduko udal-bulegoan eta, arrastiko 04:00etatik gaueko 09:00etara, Erandiogoikoko Gizarte Etxean. ◀

info+: Erandio.eus

Euskara sustatzeko jarduerak babesten segituko du Udalak

Datorren maiatzaren 19ra arte eska daitezke diru-laguntzak Erandion, euskara sustatzeko jarduerak egiteko. Udalerriko auzotarrek, elkarteek eta erakundeek daukate eskaerak egiteko eskubidea, Euskara Sustatzeko Ekin-tza Planean ezarritako helburuakaz bat egitekotan. Erandioko Udal Euskara Zerbitzuak 5.000 euro banatuko ditu aurkeztutako proiektuen artean.

Inprimakiak udal-bulegoetan batu edo Euskara Zerbitzuaren webgune-tik jaitsi daitezke. Aurkezteko, ostera, udaletxera, Astrabuduko udal-bulegora edo posta-bulegoren batera jo beharra dago. Bestalde, guraso-elkarteen eta ikastetxeen deialdia irailean zabalduko da. Horretarako, 7.500 euro bideratuko ditu Erandioko Udalak. ◀

info+: Erandiokoeuskarazerbitzua.com



Saltsan

AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA
Herri-langilea

Kopla asko, lanpostu on gutxi

Udalak plantillan 3 lanpostu besterik ez dauka kiroldegi bi goizetik gaue-ra zabalik edukitzeko; udal langilerik ezean, azpikontratutako enpresakoek egiten dute gainerakoa, lan-baldintza eskasagoetan. Obretako brigadan aspaldi jubilatu ziren Sabin, Karmelo, Jose Luis eta beste. Ez dute ordezkorik kontratatatu eta Udalak faktura galantak ordaintzen ditu: lagunen enpresek egiten dituzte lantxoak. Horrela eraikitzen dira 'negozioak konpartitzeko' eta dirutzak poltsikoratzeko bideak, arian-arian. Horregatik, garrantzitsu deritzat gure herrietan lanpostu eta zerbitzu publikoak garatzeari, pribatizatze joerak baztertuta. ◀

TXIBERRI
EDANTOKIA
FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4. URDULIZ
94 676 07 15

LUBERRI
OBRAK ETA ZERBITZUAK

- Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
- Inausketak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A behe, 812 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 • 94 467 17 13
luberry@luberry.biz
www.luberry.biz

Leioa

Plan estrategikoa, martxan

Sabino Arana kaleko birgaikuntzak edo Umore azokako artista lokalen hazkundearen proiektuak 2017-2018an garatuko direnen artean aipagarrienak dira.



Sabino Arana kaleko birgaikuntza proiektuak aurrekontu handiena izango du.

Leioa 2015-2019ko Plan Estrategikoak 2017 eta 2018an garatuko diren 36 proiektuak aukeratu eta euren aurrekontuak argitaratu ditu herri-aldizkarian. Hurrengo egunetan, Udalak aurrekontu horiek etxex etxe banatuko ditu.

Plan estrategikoak bost ardatz nagusi dauzka: *Garapen Lokala: sustapen ekonomikoa, berrikuntza eta enplegua* (386.270 euroko aurrekontua); *Garapen jasangarria: hazkuntza azkarra* (8.212.130 euro); *Gobernu ona, irekia eta bitartekaritza aurreratua* (848.898 euroko aurrekontua); *Solidaritatega eta garapena arreta sozialean* (1.994.000 euro); *Bizitza-kalitatea: nortasuna, kultura, aisialdia eta kirola* (445.500 euro).

Ekimena urteroko eta zenbait urterako programen bidez osatuko da, eta bertan Udal-ekintza guztiak kokatuko dira. Gainera, plan honen bidez,

Udalak udal-aktiboak zein herritarrekiko arreta hobetuko dituela adierazi du Leioako Udalak, «Gobernu eredu irekia eta administrazio kolaboratiboaren bidez».

Proiektu hauen artean, diru kopuru handiena *Garapen Jasangarria: hazkuntza azkarra* atalak izango du. Sabino Arana kaleko birgaikuntzak 4.000.000 euroko partida izan du. Proiektu hori aurrekontuetako garestiena da, zenbait urtetan garatzekoa. Aipatzekoa da ere Txorierrri igogailuak 2.503.460 euroko aurrekontua daukela eta umeen parkeetako eraberritzeak 500.000 eurokoa.

Bizitza kalitatea: nortasuna, kultura, aisialdia eta kirola atalean aipatzekoa da ere Umore Azokaren artista lokalen hazkundeak eragin duen aurrekontu-saila: aurton, Udalak 10.000 euro gehiago inbertitu ditu urteroko zita berezi honen proiektuan. ◀

Leioak 12 urteko umearen aurkako sexu-erasoa salatu du

Pasa den apirilaren 24an, eskolatik bueltan zihoan 12 urteko neska batek sexu-erasoa jasan zuen Ondiz auzoan.

Gertaeraren berri izan bezain pronto, Leioako Udalak gertaera salatu zuen lehen momentutik, Bozeramailleen Batzordearen bidez: «Erakundearen eta Leioan bizi garen guztion beharra da emakumeen aurkako biolentziaren arbuioa adieraztea eta gizartearen gaitz hau errotik kentzeko irtenbideak proposatzea, biktima eta bere familiari laguntza eta elkartasuna agertzeaz batera», adierazi zuen Mari Carmen Urbietak alkateak udalerraren webgunean.



Hilaren 27an, Leioako Mugimendu Feministak kontzentrazioa antolatu zuen Boulevarden. Ekitaldiaren hasieran Udala mintzatu zen, eta ondoren, Leioako Mugimendu Feministak ordu erdiko mintzaldia eskaini zuen. ◀

Torresoloko 58 etxebizitzetako lau bloke, izendatuta

Torresolo auzoko lau eraikuntza bloke nominatuak izan dira *Architizer A+ Awards* arkitektura lehiaketan. Eraikuntza horiek Idom estudioko arkitekto bilbotarrak diseinatu zituen eta Gipuzkoako Sukia konstruktoreak eraiki zituen, 2015ean.

Lehiaketa Aste Santua baino lehen egin zen, online, boto bidez. «Arkitektura-obra bezala asko gustatu zitzaion jendeari», adierazi dute Idometik. Eraikuntzak kurbadun adreilu zurietako fatxada eta aluminio iluneko leihoak dauzka, eta *architizer.com* webgunearen arabera, argitasuna eta baikortasuna transmititzen dute, es-tandarretatik ihes eginez. ◀

Bonbilla berdeak Aurrekontu Gardenen alde isiotuko dira

Leioako Udala eta Euskal Herriko Unibertsitatea elkarlanean dabil-tza *Aurrekontu Gardenak* proiektua sortzeko. Udala eta Parte-hartze eta Komunitate garapen Masterreko ikasleek hitzarmena gauzatu zuten Aurrekontu Gardenak ekimenaren fase berria martxan ipintzeko. Proiektuaren helburu nagusia, alde aurretik formaturiko herritarrek urteroko aurrekontuak definitzen laguntzea da, datorren urtekoak hasita.

Aurrekontu Gardenak kaleetan ikusi ahal izango dira Merkatarien Elkartearen laguntzaren bidez, proiektua zabaltzen lagunduko baitute, herrian bonbilla berdeak ipiniz. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



ikastolenelkartea

Urbe Kostako astekaria

hiruka zaitez!



Urtean 35€ baino ez

hiruka.eus/harpidetza/laguna/
944 911 337
hirukakoop@hiruka.eus

Zu eta biok, **hirukan**, bultzada bera!
Trukean: zozketak, sariak, astekaria eguaztenero...

Sopela



Konponketek 20 kale baino gehiagotan izango dute eragina. © SOPELAKO UDALA

250.000 euro, herriko kaleak argitzeko

Sopelako Udalak aginte-koadroen %53a konponduko du, argiteria publikoa hobetzeko.

Sopelako 56 aginte-koadroetatik 30 konponduko dira, 252.300 euroko inbertsioa eginez. Behar hori orain dela aste batzuk sortu zen, Udalak zenbait ikuskapen egin eta akatsak sumatu ondoren. Konponketak, Aste Santu ostean hasitakoak, 2.632 luminariatik 1.658etan eragingo dute zuzenean: Goikoetxen, Martxoak 8n, Asun, Uribe Basterran, Itxasganen, Zientotxe bidean, Atxabiribil etorbidean, Loiola Ander Deunan, Errotabarrin, Iberren, Urgitxetan, Arabetan, Gatzarrinen, Sugurdialden, Etxebarri zeharbidean, Lizarren, Enrike Urruti-koetxean, Sabino Aranan, Olabiden, Sipirinen, Mendietan, Urkon, Larrondoganen, Doctor Landan, Sertutxan, Loiola zeharbidean, Arrietara etorbi-

dean, 8.1 sektorean eta Kalitxetan. Zortzi-hamar aste bitarteko iraupena izango dute lanek, eta hobekuntzak hauek izango dira: kableatu eta bere osagaien material isolatzaileen zuzenketa, zirkuitu eta osagaien identifikazio-errotulazioa, konexioen hobekuntza, etab.

Udalaren arabera, berritzeari esker instalazioak hobetu egingo dira eta euren bizitza luzatuko da: «Ahalegin ekonomiko garrantzitsua da eta Udalak instalazio elektrikoaren funtzionamendu ona bermatu gura du, kalteak murriztuz», azaldu du Gontzal Hermosilla alkateak.

Proiektu honen helburu nagusia ibilgailu, oinezko eta inguruko ondaren segurtasuna bermatzea da, eta giro atsegina ezartzeaz gainera, etorkizuneko arazoak murriztu gura dituela azaldu du Udalak bere webgunean.

Urtea amaitu baino lehen edo 2018ko hasieran, Udalak bigarren eta azken fasea martxan ipini gura du, gai nontzeko 26 koadroak konpontzeko. ◀

Herriko udalekuetan izena emateko epea zabaldu da

Sopelako Udalak hilabete amaierara arteko epea zabaldu du izena emateko umeentzako Summer Camp 2017, *Udaleku Irekiak* 2017 eta *Surf Udalekuetan*, eta maiatzaren 22tik ekainaren 2ra, *Musikaz Blai* programarako.

Summer Camp 2017 ingelesean trebatzeko udalekuak dira, 12-15 urte bitarteko gazteentzat. Programaren helburua ingelesezko komunikazio gaitasuna garatzea izango da. Udalekuak uztailan izango dira, 38 leku daude guztira. Matrikula arrunta 450 eurokoa da, bigarren neba-arrebaren kostua 335 eurokoa izanik eta hirugarrena 280 euro. Oinarritzko errenta jasotzen dutenek 150 euro ordaindu beharko dituzte. Sopelako Udalean eta Sopelaren eman daiteke izena daborduko.

Udaleku Irekiak 2017 jolas, tailer eta kirol ekintzei zuzenduta daude, 4-12 urte bitarteko umeentzat. Lau txanda

antolatu dituzte: uztailaren 3tik 17ra, uztailaren 18tik abuztuaren 1era, abuztuaren 2tik 16ra eta abuztuaren 17tik 31ra. Udaleku hauek egun erdikoak izango dira, Prezioa 85, 65, 55 edo 50 eurokoa izango da.

Surf Udalekuak surfaren bidez 13-17 urte bitarteko gazteen artean euskara sustatzea dute helburu, hondartzan. Txanda bi egongo dira: uztailaren 3tik 14ra eta uztailaren 17tik 28ra. Matrikula 85, 65, 55 edo 50 eurokoa izango da. Izena emateko Kurtzio kultur-etxean edo 944 065 505 telefonoan.

Musikaz Blai kantua, mimika musika, dantza eta antzerki jardueren bidezko udalekuak dira, Sopelako 12-15 urte bitarteko gazteei zuzendurikoak. Jarduerak musika-eskolan izango dira, uztailaren 3tik 14ra. Matrikula 85, 65, 55 edo 50 eurokoa da. Izena emateko Sopelako Musika Eskolan. ◀

info+: hiruka.eus/sopela ◀

Musika bandek hilaren 7ra arte eman ahal izango dute izena

Maiatzaren 7ra arte zabaldu dute Sopelako Udalak eta Jai Batzordeak herriko jaietan parte hartu gura duten bandek izena emateko epea. Parte-hartzaileek hurrengo baldintzak hartu beharko dituzte kontuan: taldekide bat gutxienez sopoloztarra izatea eta taldearen biografia, CDa eta kontaktua (telefono zenbakia edo e-maila) ematea. Euskararen erabilera bereziki baloratuko da.

Parte-hartzaile guztien artean zozkatuko da eta garaileek herriko San Pedro edo El Carmen jaietan jotzeko aukera izango dute. Aurreko edizioetan parte hartu ez duten taldeek lehentasuna izango dute. ◀

Txosnen eta barren eskabideen epea zabaldu da

Sopelako Jai Batzordeak maiatzaren 18ra arte zabaldu du epea San Pedroko jaietan txosnak eta kale-barrak ezartzeko eskabidea egiteko.

Eskakizuna egiteko eskabide-orria bete beharko da. Dokumentazioa Udaletxean eta Sopelaren dago eskuragarri. Kale barren kasuan eskatzaileak NANaren fotokopia, kale-barraren neurriak jasotzen dituen plano eta 1.500 euroko fidantza ordaindu beharko ditu, besteak beste.

Txosnen kasuan bestelako baldintzak bete beharko dira: instalazioen neurriak, aseguru-poliza eta beronen muntaketa-desmuntaketa datak zehaztu beharko dira. ◀

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa · Frantsesa · Alemaniera

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6/Iberre 9 · 48600 SOPELA
94 676 30 12
info@hamiltonidiomas.com

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Eraikuntza zerbitzu integralak

Illeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

Irunbat
galp energia

Loiola Ander Deuna 74
48600 SOPELA
946 764 625
www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

hau herikuntzatik
ander deuna
batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus

Berango

Antzerkizaleen gozamenerako

Maiatzaren 6tik 27ra

bitartean, Bizkaiko hiru antzerki-taldek obra bana taularatuko dute Berangoko agerlekuan.

Berango Antzokia aktore amateurren topalekua izango da seigarren urtez, maiatzaren 6tik 27ra bitartean. Izan ere, Antzerki Amateurren Jaialdia izango da bertan datozen egunotan. Denbora tarte horretan, Derio eta Sopelatik etorritako eta bertoko antzerki-taldeek jardungo dute aretoan.

Sopelako Itzartu taldea izango da lehena taulara igotzen, hilaren 6an, zapatuan. Josep María Benet-en *Motín de brujas* antzezlanak aurkeztuko dute oholatza gainean. Lan horretan, sei garbitzaile eta zaindari baten arteko gorabeherak azaleratuko dituzte, ilargi beteko gau batean kokatuta.



Saio bakoitzerako sarrerak, hiruna euroan, eta denentzako bonua, sei euroan, eros daitezke.

Hurrengo taldea Derioko Sutondoan izango da; Alejandro Casonaren *La tercera palabra* lana antzeztuko dute, hilaren 21ean, domekan. Komedia horretako protagonistak ez daki idazten ezta irakurtzen ere, eta mendi puntan bizi da. Azkenik, hilaren 27ean, zapa-

tuan, Berangoko Txirlora-Acadae antzerki-taldeak Miguel Mihura eta Álvaro de Laiglesia egileen *El caso de la mujer asesinadita* taularatuko du. Komedia bikain hori burgesiaren usteki-zunen eta ezarritako moralaren kritika da. Antzokian lanean ibiliko diren

Egitaraua

Maiatzak 6, zapatua

19:00 *Motín de brujas* antzezlan. Egilea: Josep María Benet. Antzerki-taldea: Itzartu (Sopela).

Maiatzak 21, domeka

19:00 *La tercera palabra* antzezlan. Egilea: Alejandro Casona. Antzerki-taldea: Sutondoan (Derio).

Maiatzak 27, zapatua

19:00 *El caso de la mujer asesinadita* antzezlan. Egileak: Miguel Mihura eta Álvaro de Laiglesia. Antzerki-taldea: Txirlora-Acadae (Berango).

hiru taldeak Fernando Ansoleaga berangoztarraren gidaritzapean egongo dira. Ikuskizun guztiak arrastiko 07:00etan hasiko dira.

Urtero legez, udalerriko eta inguruko jendea antzerkira zaletzea izango dute helburu jardunaldiek. ◀

Bertoko produktuak eta euskal pastelak, Moreaga parkean

Maiatzaren 7an, domekan, bertoko nekazari eta artisauek Berango bisitatuko dute. Berangoko Simon Otxandategi dantza-taldeak 24. Nekazaritza eta Artisautza Azoka antolatuko du urtero legez. Postuak Moreaga parkean egongo dira eta honako postu eta produktuak aurkitu ahal izango dira: egur-taila, buztingintza, fosil eta mineralak, imitazio-bitxiak, taloak, gazta,

eztia, kontserbak, txokolatea, txakolina, eta abar. Azokaz gainera, aurturaren ospe handiko euskal pastel onenaren Euskadiko txapelketa egingo dute, 19. aldiz. Euskal Herriko zenbait txokotako gozogilerik onenek parte hartuko dute norgehiagokan; horiek ere euren postutxoak izango dute azokan. Azken urteotan legez, azokak Jesús Llona Larrauri zena omenduko du. ◀

Barrika

Pertsona nagusiak kontsumo-gaietan formatzeko ekimenak

Formakuntza-programa bat ipini du abian Barrikako Udalak, adineko pertsonak kontsumo-gaietan presatzen daitezkeen. Roberto Muñoz alkateak azaldu duenez, ekimena Kontsumobidegaraz elkarlanean egingo du Udalak. Beren-beregi, hiru jarduerak egingo dituzte erakunde biek. Maiatzaren 15ean, astelehenean, izango da lehenengoa: elikadura eta nutrizioaren gaineko tailer praktikoa. Egun bi beranduago, interesdunek botiken erabilera arduratsuen inguruko argibide-berbalak entzuteko aukera izango dute. Saio bi horiek 17:30ean hasiko dira. Bestalde, maiatzaren 26an, barikuan, Bakio

eta Meñakarainoko txango batek itxiko du kontsumo-gaietan prestatzeko ziklo hori. Irteera horretan Bakioko Txakolingunea bisitatuko dute, ondoren Meñakako berotegi batera joateko. Bertan, Eusko Labeleko tomateak ekoizten dituzte. Barrikako Udalak jakinarazi duenez, leku-kopurua mugatua da ekimen denetan; gainera, Kontsumobidegaraz aurretiaz jakin behar du pertsona-kopuru zehatza. Hala, izena emateko epemuga maiatzaren 6a izango da. Inskripzioa Barrikako Kulturgunean egin daiteke bertatik igaroz edo 946 775 163 telefonora deituz. Barrikotarrak lehentasuna izango dute. ◀

Udalekuetarako izen-ematea zabalik dago



Izena eman dutenen artean zozketa egingo dute maiatzaren 17an.

Udan ondo pasatzeko egundoko aukerak izango dituzte Berangoko gazte, nerabe eta umeek.

Berangoko Gaztelekuak eta Berango 21 Tokiko Agendak zabaldu dituzte udako egonaldiako eta udalekuetarako inskripzio-epeak. Kasu bietan, maiatzaren 12ra arte eman ahal izango da izena Berango eta Santa Ana kultur etxeetan. 13 eta 18 urte bitarteko gazteek Lekeition egingo dute egonaldia, ekainaren 30etik uztailaren 2ra arte; bertan txangoetan eta

arraunean ibiliko dira. Beste gaztetxo denek ekainaren 26tik uztailaren 21era izango dituzte udaleku irekiak, goizez. Hala, 2005 eta 2008 bitartean jaiotakoek Santa Anan izango dute kuartel nagusia. Euskal Herrian barrena, Gasteiz eta Elizondoraino joango dira, besteak beste bizikletaz ibiltzera, kayaken nabigatzera eta surfa egitera. 2009 eta 2011 bitartean jaiotakoek eskolan osatuko dituzte Ludoteka taldeak, handik zenbait txangora joan eta hainbat kirolez gozatzeko. Azkenik, 2012 eta 2014 bitartean jaiotako neska-mutlak Berangoetatik aterako dira.

info+: hiruka.eus/berango

Gorliz

Lirain Txiki eta Iraunkor abesbatzen kantaldia, zapatuan

Gorlizko Lirain Txiki abesbatzak kantaldia eskainiko du maiatzaren 6an, 20:30ean, Gorlizko elizan, doan. Beragaz batera emanaldia birliduko dute Plentziako Iraunkor eta Mundakako abesbatzek. Udaberriko Kontzertuak programaren barruko ekitaldia da zapatuan Gorlizen egingo dena. Izan ere, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Bizkaiko Abesbatzen Federazioak antolatzen duten kontzertu koraleko ziklo horrek 38. edizioa betetzen du aurten. Horretan 71 abesbatzak parte hartzen dute eta Bizkaiko 40 herritan baino gehiagotan eskainiko dituzte kantaldiak, guztira. ◀

(H)Aizu! Senperera joateko autobusa antolatuko dute

Maiatzaren 14an izango da Herri Urrats ikastolen jaia, ohi den legez Senperen. Bertaratze autobuz-zerbitzua eskainiko dute Gorlizen, eta horretaz baliatu gura duenak izena eman beharko du hilaren 10a baino lehenago, kultur etxean. Aurtengo kantaren letra Amets Arzallusek idatzi du; musika Ken Zazpi taldearena da, eta Iparraldeko ikastolen aldeko jaiaren goiburua honako hau da: Hai-zu; 'bidezko, zilegi, legezko' esangura izan dezake; baxoa euskaraz egin gura dutenen aldarrikapenari keinu egiten dio, euskararen ofizialtasuna eskatzen du, eta hurreratzeko «zuri preseski egiten dizugun deia: Aizu!». ◀

egitaraua eta info+: www.herriurrats.eus



info+ eta harremanetarako: www.gorliz.net / gorliz@gorliz.net

Udalekuen izen-ematea, orain

Udan Jolasean eta Gorlizko Udalekuek parte hartu gura duenak izena eman beharko du hilaren 13a baino lehen.

Udaldiko opor-egunak jolasen emateko ekimen bi antolatuko dituzte, adin-tarte ezberdinei begirakoak. Batetik, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Udan Jolasean eskainiko duena, 2012-2014 urteen artean jaiotako umeentzat izango da (3-5 urte artekoentzat), eta ekainaren 26tik uztailaren 21era bitartean egingo dituzte tailerrak, jolasak eta abarrak, Gorlizko ikastetxean, 10:30etik 13:30era. 40 umerentzako lekua egongo da, eta lehentasuna izango dute Gorlizen

errolatutakoek. Parte hartu gura dutenek 50 euro ordaindu beharko dituzte (familia ugariok eta DBE jasotzen dutenek, gutxiago). Horrez gainera, haurtzaindegi-ludotekaren zerbitzua ere egongo da, 09:00etatik aurrera, Sertutxena aretoan. Gorlizko ikastetxeraino joateko autobus-zerbitzua egongo da. Bestetik, Gorlizko Udalak Udalekuak antolatuko ditu 2005-2011 urteen artean jaiotakoentzat (6-12 urte). Ekainaren 26tik abuztuaren 25era izango dira, aste txandetan, astelehenetik barikura, 10:30etik 14:00etara. Besteak beste ur-jolasak, kirol-ekintzak eta tailerrak izango dituzte; gorliztarrek aste bakoitzeko 58 euro ordaindu beharko dituzte (beste herrietakoek, gehiago).

Batean zein bestean izena ematea kultur etxean egin daiteke, edo e-mailez, maiatzaren 13a baino lehenago. ◀

Azterketa Teknikoa herrian egin ahal izango dute motorrek

Bi gurgpileko ziklomotorrek Ibilgai-luen Azterketa Teknikoa (IAT) egin ahal izango dute herrian bertan, bai Gorlizen, bai Plentzian. Azterketa egiteko, unitate mugikor bat ipiniko dute Arpillao aparkalekuan, Txurrua kalean, hurrengo astean: Gorlizen, maiatzaren 9an, martitzenean, 09:30ean; Plentzian, maiatzaren 10ean, eguaztenean, 09:30ean. Hala ere, udal biek jakinarazi dute aurretik hitzordua hartzea beharrezkoa dela; Udaltzaingora deituz egin daiteke, edo behean zehaztutako telefono zenbakietara dei egin ez ere bai. Hori egitean zehaztu beharreko datuak hurrengoak hauek dira: titullarra, matrikula eta telefonoa. ◀

info+: 946 773 310 (Plentzia) / 946 770 000 (Gorliz)



tez, doako ikastaroan parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da, maiatzaren 16a baino lehenago, Goñi Portalen (leku-kopurua mugatua da). ◀

info+: kultura@plentzia.eus / 946 775 541



Ez da giro

GERMAN KORTABARRIA IGARTUA

Ekosistena neoliberalaren aldeko koalizioa

O nartu dira EAeko aurrekontuak. Jeltzale, sozialista eta popularrak elkar hartu dute ekosistema neoliberalak indartu jarrai dezan. Monopartidismo ideologiko honetatik –Jose Elorrietaren azken liburutik hartu dut kontzeptua, ekosistema neoliberalarena bezala– kanpoan geratzen diren alderdiak populista edota antisistema deituta deskalifikatzen dituzte; indar sozialei berriz –sindikatuak barne– gai horiez ezer esateko zilegitasuna ere ukatu egiten zaie.

Izan ere eredu ekonomikoa erabakitzeko orduan «koalizio handira» bildu ohi dira ordenuko alderdiak, erakutsiz gehiago baliu duela kredo neoliberalarekiko atxikimenduak ñabardura politikoek baino. Ez da kontu berria: orain hamar urte, popular eta sozialisten «Ibarretxe planaren» aurkako gurutzadaren gordinen, jeltzaleek haiekin adostu zuten erreforma fiskala, Lakuan bazkide zituzten EA eta EB baztertuta: eredu neoliberalak bada go jokoan, txikikeriak alde batera uzten badaki koalizio handiak.

Orain –odolkiak ordainetan– Madrilgo aurrekontuak babes-tuko dituzte jeltzaleek, beti ere –nabarmetzen digute– «Euskadirentzako onuren» truke. Badago uste duenik, halere, «onura» horiek –antza, Kontzertuaren aplikazioari buruzkoak, ditxosozko alde bikotasun politikoak ez baita ezer entzun– gehienon mesederako baino gehiago klase jakin baten pribilegio fiskalak bermatzeko erabiliko direla, beste behin. Fiskalitateari buruzko eztabaida, ordea, tabu bihurtu dute haren onuradun diren botere faktikoek eta hauen mandatarri bilakatu diren koalizio handiko kideek. Eta «Euskadirentzako onurak» bezalako orokorkerien mantupen estaltzen jarraituko dute eztabaida politiko nagusia behar lukeena. ◀

Plentzia

«Lana aurkitzeko» ikastaroa eskainiko dute, andreentzat

Behar bila dabiltzan 45 urtetik gorako emakumeei begirako ikastaroa eskainiko du Plentziako Udalak. Tailer praktikoa izango da, eta diruz lagunduko du. Maiatzaren 22tik ekainaren 26era bitartean izango dira eskolak, eta horietan andrezkoek ikasi ahal izango dituzte honako eza-gutzak: «norbanakoaren gaitasunak eta motibazioak ezagutzen, curriculum egokiak egiten, lan-elkarrizketa bati zelan aurre egin eta lan-eskaintzak non dauden». Antolatzaileek iragarri dutenez, «bakarkako jarraipena egingo zaizu, lana bilatzeko zure proiektuari laguntzeko». Horrenbes-

Uribe Kosta

Gazteei begirako beka-programa

Lehendabiziko lan-esperientzia lortzen laguntzeko beka-programa bat iragarri du Aldundiak; eskualdeko udalakaz batera hitzarmen bat sinatzeko lanean dihardu.



Batzar Nagusien kontrolako osoko bilkuran egin zuen iragarpena Rementeriak, apiril amaieran. © EAJ

Bizkaiko beste eskualde batzuetan egin legez, Uribe Kostan ere, Aldundiak gazteei begirako beka-programa bat martxan ipintzeko asmoa duela iragarri zuen Bizkaiko ahaladun nagusi den Unai Rementeriak. Batzar Nagusien kontrolako osoko bilkuran egin zuen iragarpena, apiril amaieran. Izan ere, Gazteriaren Urtearen berri eman zien Rementeriak Batzar Nagusiei, EH Bilduk Gaztedi Bizkaia 2020 foru-estrategiaren inguruan egin zion galdera erantzutean. Aldundia gazteei aukerak eskaintzeko lantzen dabilen apustua azaldu zuen, eta horren haritik 2017. urtea Gazteriaren Urtea izendatu du, «Bizkaia Goazen Gazteak» goiburuagaz. Horren barruan, Rementeriak garrantzia eman dio udalakaz batera jarduteari, gazteriaren enplegua eta trebakuntza bultzatzeko, eskualde-mailako hitzarmenak eginez;

modu berean, nabarmendu zuen programa horien helburua «lehendabiziko lan-esperientzia lortzen laguntzea» dela, gazteak «berez prestatuta dauden arloan lan-munduekiko lehendabiziko harremana lor dezaten». Daborduko, sei eskualdegaz hitzarmenak sinatu ditu Aldundiak; eta ahaladun nagusiak jakinarazi zuenez, datozen asteotan beste seigaz sinatzeko lanean dabiltza, horien artean, Uribe Kostako udalakaz batera sinatzeko asmo dute.

Orain arte, modu «horretako jardueretan parte hartu duten gazteen %42ak lortu du azkenean kontratua, laneakoak ez diren praktikak egin dituzten enpresetan» azpimarratu zuen Rementeriak. «Ia milioi bat euroko zenbatekoa ipini dugu udalek eta Aldundiak, bat egin eta indarrak batzen ditugun eskualde-mailako hitzarmenak bultzatzeko», erantsi zuen ahaladun nagusiak. ◀

Datu fiskalak ikusgai, errenta-aitortzarako

Joan den martitzenean abiatuta, ekainaren 30era bitartean egin ahal izango dute zergadunek 2016ko Erretaren eta Ondarearen aitortpena. Horretarako, Foru Ogasunak bere esku dituen datu fiskalak kontsultatzeko zerbitzua abiarazi du, datuok beharrezkoak direlako. Hala, zergadun bizkaitarrek Ogasunak dituen zergadatuak kontsultatu eta deskargatu ahal izango dituzte; «zuzenean inportatu ahal izango baitituzte beren zergadatuak laguntza-programara. Izan ere, laguntza-programa ere deskargatu ahal izango da, dohainik, Errentaren web-

gunean», azaldu dute foru-arduradunek. Modu berean, programa horren laguntzagaz aitortpena presta daiteke, eta, behin eginda, Internet bidez aurkeztu daiteke, edo, bestela, inprimatu, eta Ogasun eta Finantza Saileko bulegoetan edo finantza-erakunde laguntzaileetan aurkeztu. Errenta Etxean zerbitzuaren proposamenetan zuzenketak egiteko aukera ere badago, Bilboko bulegoan. Zerbitzu horretarako, aurretik hitzordua eskatzea beharrezkoa da, bulego deszentralizatuetan (eskualdean bakarria dago, Getxokoa). ◀

info+: bizkaia.eus/errenta

Haur-eskoletan izena eman ahal izango da hilaren 12ra arte

Haurreskolak Partzuergoak matrikulazioaren epea zabalik izango du maiatzaren 12ra arte. 2016 eta 2017 urteetan jaiotako umeen gurasoek edo legezko tutoreek eska dezakete lekua Haurreskolak Partzuergoko zentroetan; oster, aurten go apirilaren 20tik aurrera jaiotakoen izen-ematea maiatzaren 12tik aurrera aurkeztu ahal izango dute eta behin-behineko edo behin betiko zerrendetara gehituko dira. Uribe Kostan, Partzuergoko haur-eskolak hurrengo herrietan daude: Gorlizen, Plentzian, Sopelan, Urdulizen, Berangon, Getxon, Leioan eta Erandion. Leioan, zentro bi daude, Altzoan eta Artatza;



info+: haurreskolak.eus

Erandion, hiru: Alzaga, Astrabudua eta Erandiogoikoan; eta gainontzeko herrietan, bakarria. Hala ere, horietako batzuetan ez dago lekuri daborduko; zerrenda osoa eta harremanetarako bideak webgunean ikus daitezke. ◀

hiruka

Uribe Kostako astekaria

Udara begira, zenbaki bereziak prestatzen gabiltza

Horietan zure taberna, denda edo aisialdiko zerbitzua iragarri gura baduzu, ez galdu aukera!

944 911 337
publi@hiruka.eus


ESKUALDEKO UDAKO
PROGRAMAZIO OSOA

JAIEN EGITARAUAK



www.hiruka.eus





Uribe Kostako epaile bik 40 testu onenak aukeratuko dituzte, eta irabazleak irailaren 18an ezagutaraziko dira.

Argihizkiak 2017

Maiatzaren 31ra arte parte hartu ahal izango da testu laburren lehiaketan. Bertoko 10 argazkilariren irudien gaineko testuak *argihizkiak.eus* bidez bidaliko dira.

Abian da irudien eta hizkien Argihizkiak lehiaketa; seigarren edizioa da aurtengoa eta horretara lanak bidaltzeko aukera egongo da maiatzaren 31ra arte.

EGIZU! Getxo Euskaldun elkarteak eta HIRUKA Komunikazio-taldeak antolatzen dute Argihizkiak ekimena; horretarako, Getxo, Leioa, Erandio, Gorliz eta Plentziako udalen laguntza dute, eta Berbots, Bizarra Lepoan, Aitxu! eta Leioako Berbalagunak eus-

kara taldeakaz elkarlanean dihardute. Literatura eta argazkilaritza uztartzen dituen ekimen horren helburua da jendeak euskaraz idaztea eta irakurtzea, hein handi batean, eta, aldi berean, Uribe Kostako argazkilarien lana ezagutaraztea. Aurtengo argazkien egileak honako hauek dira: Eukene Olague Fullaondo, Jon Bernárdez Losada, Paula Odriozola Ruiz, Alex Ygartua Fernandez, Sandra Amutxastegi Bouza, Gilles Bourdoiseau Lan-

ser, Eider Álvarez Puras, Jon Herranz Hernández, Carla Pruns Ruiz eta Endika Basaguren Ansoleaga.

Parte hartzeko maila bi daude: 16-18 urte bitartekoena, eta 18 urtetik gorakoena. Gainera, lehiaketak atal bi dauzka: testu labur-laburrena (gehienez, 160 karaktereko testua) eta testu laburrena (100 berba, gehienez). Aurtun, testuak webgunearen bidez bazarrik helarazi ahal izango dira, *argazkihizkiak.eus*-eko fitxa betez. ◀

Oinarriak

Modalitateak

Maila bi daude, adinaren arabera:

- 16-18 urte bitartekoena
 - 18 urtetik gorakoena
- Atal bi daude, testu-luzeraren arabera:
- Testu labur-laburrena: 160 karkatere.
 - Testu laburrena: 100 berba, gehienez.

Epea

Maiatzaren 31ra arte.

Ezaugarriak

Euskara batuan edo euskalkietan idatzitako prosa, olerki, bertso edo bestelako testuak izan daitezke. Oinarritzat hartutako argazkia eta horren egilea adieraziko dira.

Zelan bidali

Webguneako fitxa betez.

Sariak

Nagusien ataleko irabazleek, 200 euro bana. Gazteen atalekoek aipatutako antzeko balioa duten euskarazko literatura sustatzeko material-sorta edo gailu bat.

Hitza emanda



Ados

Bidegurutze baten parez pare gagoz, norantz egingo dogun jakiteko asmoz. Galdeketa bitarte eritziak jasoz, danon ahotsa entzunda jar gaitezen ados!



PERU DE PEDRO LARREA
Bertsolari plentziarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Umore Azokan 150 ikuskizun egongo dira

Maiatzaren 18tik 21era arte, Euskal Herriko, estatu-mailako eta munduko 50 konpainia helduko dira Leioaraino XVIII. Umore Azoka dela eta, 150 ikuskizun eskaintzeko. Begi guztiak udalerriko kaleetan izango dira, adin guztietako askotariko ikuskizunakaz gozatzeko. Lau egun horietan mundu-mailako 21 estreinaldi, estatu-mailako bederatzi, kaleko estreinaldi bi eta *work in progress* bat ikusi ahal izango dira Leioan.

«Gure herria kale-arteetako erreferentzia lekua bilakatuko da berriro», adierazi zuen Mari Carmen Urbietak, Leioako alkateak, pasa den apirilaren 26an Bilbon egindako prentsurrekoan. Alkatearen berbetan, azokaren aurrekontua handitu dute, 280.000 euro baino gehiago bideratuz: «Azokarekiko konpromisoa erakusten dute datu hauek, eta ez bakarrik arlo ekonomikoan», azaldu zuen Urbietak. Azokako jarduera paraleloen artean,



Pasa den urteko Umore Azoka

aipatzekoa da leioaztarra Kalian Hiri Kulturguneak hirugarren urtez antolatutako *Piknik Kalian Pinosolo* ikuskizuna. Pinosolo parkea hilaren 18ko 17:00etatik eta hilaren 21eko 22:00ak arte jardueraz beteko da: erakusketak, dekorazioak, horma-margoketak...

Pasa den urtean, 38.000 lagun hurreratu ziren Leioako Umore Azokaraino. Aurtun sektoreko 200 profesional etortzea espero dute antolatzaileek, eta horiei beste 200 parte-hartzaile gehitu beharko zaizkie. ◀

Miru eta bere lagunak eskainiko dute Antzerki Amateurraren VI. Jaialdian, euskaraz

Kiliklon Ekoizpenak Miru sorginaren istorioak ekarriko dizkigu oholtzara maiatzaren 7an 18:00etan, Berango Antzokian. Antzerki amateurraren VI. jaialdiko ikuskizun honek Antzira batean bizi den Miru sorginaren istorioak kontatuko dizkigu Xarpazegaz, Zurrun Kapitainagaz, tximeleta bihurritxoakaz, izen bako aztiagaz...

Eszenografia ikuskizuneko berebiziko elementua da, argiek eta itzalek ikuskizunaren atmosfera bermatuko baitute, abagunerako soinu eta argi efektuen laguntza ahaztu barik.

Miru eta bere lagunak saioak 45 minutu iraungo du, eta bertan kontatzen diren mota askotako ipuin horien guztien helburu nagusia da berdintasunaren kontzeptua azaltzea, jorratzea eta bultzatzea.

Ikuskizuna euskara hutsean izango da, eta doakoa, familientzat prestatuta dago, eta beren-beregi bi eta zazpi urte bitarteko gaztetxoentzat. ◀

hirukagenda

Uribe Kostako astekaria

2017ko maiatzaren 4tik maiatzaren 10era arte



hiruka.eus

Txanda bi izango ditu programak: maiatza eta ekainean lehena, iraila eta urrian bigarrena.



GORLIZ, LEMOIZ, PLENTZIA, SOPELA ETA URDULIZ

Euskaraz Olgetan jarduera ugariz dator aurtten

Aurtten ere, Mankomunitateko Eus-
kara Zerbitzuak martxan ipini du
Euskaraz Olgetan programa. Herri
hautan garatuko da: Gortizen, Le-
moizen, Plentzian, Sopelan eta Ur-
dulizen. Egitasmoaren helburu na-
gusia jolasa oinarritzat hartuta,
euskararen erabilera eta transmi-
sioa familiarrean sustatzea da. Txan-
da bi izango ditu programak: lehena

maiatz eta ekainean, eta bigarrena
irail eta urrian. Maiatzeko eguene-
tan Plentzian izango dira jarduerak,
17:30etik 19:30ak arte: 4an puzgarri
parkea egongo da, 11n Beldur-Haize
saioa, 18an Joskintza Kreatibo taile-
rra eta 25ean Euskal Diskoa eta ma-
killaje saioa.

Ekitaldiak beretsuak izango dira uda-
lerrri guztietan, ordua eta lekua alda-

tuz joan arren: barikuetan Urdulizko
Antsoena plazan arrastiko 05:30etik
07:30era. Hilaren 5ean, 12an, 19an eta
26an izango dira.

Barikuetan Gortizko Ibarretan izan-
go dira 12:00etatik 14:00ak arte, hila-
ren 6an, 13an, 20an eta 27an.

Sopelan ostera domeketan, 12:00eta-
tik 14:00ak arte, Jauregizar plazan,
hilaren 7an, 14an, 21ean eta 28an.

ANTZERKIA

MAIATZAK 5, BARIKUA

Charlotte & Yogurinha Show

20:00 | Kalezulo gaztetxea | Erandio

Ikuskizunaren ostean afari akustikoa egingo
dute gaztetxean bertan. Sorpresak egongo dira.
Sarrera: 5 euro.

MAIATZAK 6, ZAPATUA

Motín de brujas

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Antzerki Amateurraren VI. Jaialdiko ikuskizuna.
Sarrera: 3 euro.

MAIATZAK 7, DOMEKA

Miru eta bere lagunak

18:00 | Berango Antzokia | Berango

Antzerki Amateurraren VI. Jaialdiko txotxongilo
ikuskizuna. Euskara hutsean eta doan.

MAIATZAK 12, BARIKUA

Adarretatik Zintzilik

20:30 | Danontzat Gaztetxea

Galder Pérezek eta Ana Zabalak euskal komedia
nostalgiko baten ikuskizuna eskainiko dute.

BERBALDIAK

MAIATZAK 4, EGUENA

Getxo en sus calles: con

nombre propio

19:00 | Areetako elkartegia | Sopela
Getxo en sus calles: con nombre propio liburua
aurkeztuko du Javier Campo idazleak.

Eraso matxisten kontrako

protokoloak sortzen

19:30 | Plaza Beltza Kulturunea | Sopela

Pili Álvarezek berbaldia eskainiko du. Sarrera
doan.

MAIATZAK 5, BARIKUA

Alfon eta kontakizun idatziak

19:00 | Goñi portal | Plentzia

Alfon Etxegarai euskal deportatu politikoaaren
ekarpen idatziaz mintzatzeko berbaldia.

MAIATZAK 8, ASTELEHENA

En el mar hay cocodrilos

18:30 | Udai Liburutegia | Barrika

Herri Urratsen (maiatzak 14.) izena emateko
epea zabaldu da dagoeneko.

MAIATZAK 11, EGUENA

RGI y derechos sociales

19:30 | Plaza Beltza Kulturunea | Sopela

Etxekalte

21:00 | Plaza Beltza Kulturunea | Getxo

Bermeoko taldeak kontzertua eskainiko du.
Sarrera doan.

EUSKARA

MAIATZAREN 4TIK 28RA ARTE

Euskaraz Olgetan

Gortiz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak
Umeneztat eta familientzako eskaintako
jarduera programa, euskararen erabilera eta
transmisioa jolasaren bidez sustatzeko.

IZEN-EMATEAK

MAIATZAREN 9TIK 24RA ARTE

Ibilaldia

09:00 | Kultur-etxea | Gortiz

Ibilaldian (maiatzak 28) izena emateko epea
zabaldu da.

MAIATZAREN 2TIK 10RA ARTE

Herri Urrats

09:00 | Kultur-etxea | Gortiz

Herri Urratsen (maiatzak 14.) izena emateko
epea zabaldu da dagoeneko.

MAIATZAREN 2TIK 17RA ARTE

Nafarroako Eskola Publikoa

09:00 | Kultur-etxea | Gortiz

Nafarroako Eskola Publikoaren jaialdian
(maiatzak 21) izena emateko epea zabaldu da.

BERTSOLARITZA

MAIATZAK 5, BARIKUA

Bertso afari tematikoa

21:00 | Ekin taberna | Getxo

Unai Iturriaga eta Julio Soto egongo dira.
Bertara hurreratuko direnak moztorturik
joatea eskatzen zaie. Izen ematea: albegetxo@
gmail.com. Sarrera: 15 euro.

LEHIAKETAK

MAIATZAK 7,DOMEKA

XXXV. Txori kantariak

09:00 | Ondargana elizako plaza | Gortiz

Euria egiten badu, beste egun batean egin
beharko da.

Margolari Gazteak XX. saria

Bertso afari mexikarra antolatu du ALBEk

Unai Iturriagak eta Julio soto**k** bertso afari tematikoa egingo dute Algortako Ekin tabernan, maiatzaren 5ean, 21:00etan. Bertara mozturaturik joatea proposatu dute antolatzaileek. Izena emateko: albegetxo@gmail.com ◀

Dolo Navas 2012-17, maiatzaren 8ra arte

Dolo Navas artista gorliztarrak Kultur Leioan duen erakusketaren azken eguna maiatzaren 8a izango da. *Dolo Navas 2012-17* erakusketak *Diarío de una monja artista*, *Desmonjar* eta *Yo-piel* lanak barnean hartzen ditu. ◀

Bermeoko Etxekalte, Plaza Beltzan

Etxekalte hard-rock taldeak kontzertua eskainiko du Sopolako Plaza Beltza Kulturgunearen oholtzan, maiatzaren 6an, 21:00etan. Bermeotarrak Berri Txarraz-en musika gogorarazten duten or-dubeteko kontzertua eskainiko dute. ◀

JAIALDIAK

MAIATZAK 4, 11, 18 ETA 25
Getxo Zuzenean

Plentzia

Rufus (The Piper's Pub), Pedro McKay (Silver's Tavern), Gildas (El Comercio) eta Daniel Merino (Añite) taldeen kontzertuak
Sarrera, doan.

MAIATZAK 6 ETA 7

XVII. Emakumeak Musikan
Andrés Isasi musika-eskola | Getxo

Camerata Gasteizek kontzertua eskainiko du hilaren 6an, 20:00etan. Hurrengo egunean, Ricardo Descalzok piano kontzertua eskainiko du 19:00etan. Sarrerak kultur-etxeetan, doan.

MAIATZAREN 18TIK 21ERA

XVIII. Umore Azoka
Leioa

50 konpainien ikuskizunak ikusi ahal izango dira hilaren 18tik 21era bitarteko asteburuan.

TAILERRAK/IKASTAROAK

MAIATZAK 8, ASTELEHENA

Zirko tailerra

09:00 | Erromoko kultur-etxean | Getxo
Izena emateko epea zabalduko da tailerrean, 7-11 urte bitarteko umeentzako. Tailerra ekainaren 3an izango da.

MAIATZAK 5, BARIKUA

Kontuleku

17:30 | Udal Liburutegia | Barrika
Irakurketa familiengana gerturatzea du helburu Kontulekuk.

Gure emakume sendalariak eta bere eskubideak

16:30 | Ander Deuna kultur aretoa | Barrika
Emakumeentzako Ahalduntze Eskolak eskainitako ikastaroa. Euskara hutsean eta doan.

MAIATZAREN 12TIK 14RA

NW Irakasle ikastaroa

09:00 | Sertutxena | Gortiz
Izena emateko: info@inwaspain.com

KONTZERTUAK

MAIATZAK 6, ZAPATUA

Hesian + Reincidentes

21:00 |Portu zaharreko aparkalekua | Getxo
Hesian taldeak lan berria aurkeztuko du.

Informazio gehiago *Kulturleioa.com* webgunean eta gazte@leioa.net helbide elektronikoan.

MAIATZAK 21 ARTE

XII. Balendin Enbeita Bertso paper saria

11:00 | Algortako kultur etxea | Getxo

Daborduko zabalik dago lanak bidaltzeko epea. Azken eguna, 2017ko irailaren 30a. Lanak balendinenbeita@gmail.com helbidera bidali daitezke.

ZINEMA

MAIATZAREN 9AN, 16AN, 23AN ETA 30EAN
Hegoamerikar zinema zikloa

20:00 | Kultur Leioa | Leioa

Perseo Zineforumak Rara, Últimos días en la Habana, Madre sólo hay una eta Doña Clara filmak proiektatuko ditu hilaren 9an, 16an, 23an eta 30ean. Sarrera: 2,5 euro.

ERAKUSKETAK

MAIATZAREN 21ERA ARTE

Pintura erakusketa

11:00 | Algortako kultur etxea | Getxo

Diego Lastraren pinturak ikusgai egongo dira hilaren 21era arte, astelehenerik zapatura.

MAIATZAREN 28RA ARTE

Diálogos

11:00 | Torreñe aretoa | Getxo

Pablo Astrainen pintura erakusketa.

DANTZA

MAIATZAK 5, BARIKUA

Dantza Plazan

19:00 | Algortako San Nikolas plaza | Getxo

Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeek dantza saioa eskainiko dute.


AZOKAK

MAIATZAK 7, DOMEKA

XXIV. Nekazaritza eta artisautza azoka

Moreaga Parkea | Berango

Berangoko S. Otxandategi Dantza taldeak antolatutako azoka. XIX. Euskal Pastelaren Euskadiko Txapelketa egingo da.



Hesian lan berria aurkeztuko du Hesian taldeak; ostean, Sevillako taldearen kontzertua izango da. © REINCIDENTES

Hesian eta Reincidentes, itsasertzean

Pop-Rocka eta punk-Rockak bat egingo dute maiatzaren 6aren, Algortako Portu Zaharreko aparkalekuan. Kontzertuen gaua Hesianeko zazpikoteak hasiko dute *Hesian* azken lana aurkeztuz. Ondoren, Sevillako Reincidentes talde beranoak joko du, hainbat urtez punk-rockeko erreferente.

Noiz: Maiatzak 6, zapatua.

Ordua: 21:00

Non: Portu Zaharreko aparkalekua.

Sarrera: Doan.

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

argi hizki ak 2016

TESTU LABUR-LABURRA | 16-18 urte

Itxaso Zabala Mondina Gorliz, 2000

ETORKIZUNA

Etorkizuna
Gaurko pausoen
eragina.



Eider Moreno Carrero
Getxo, 1993
Madril, 2016ko otsaila

TESTU LABUR-LABURRA | 18+ urte

Mikel Iturriotz Etxaniz Urretxu, 1995

URTE BERRI ON

Barrua ikatz duena ohi da
edozeren izu.
Urte berri, urte ume,
zatoz zaharraren berdintsu.
Hobe zuri ere
su emango banizu.



Maite Mentxaka Tena
Berango, 1992
Berango, 2015

Iazko testurik onenak dituzue honako hauek. Akordura ekarri gura izan ditugu, ideiak isiotzeko argi izan litezkeelakoan, aurtongo lehiaketarako lanak prestatzen bazabiltzate. Joan den urtean Argihizkiak lehiaketara aurkeztutako testu den-denetatik, epaileek 40 onenak aukeratu zituzten, argazki bakoitzeko launa, maila eta atal bakoitzari zegozkion bana; eta denek osatu zuten Argihizkiak erakusketa ibiltaria. Horrez gainera, onenen arteko lauk sari nagusiak irabazi zituzten, bertan dituzuen hauek; gainontzekoakaz gozatzeko: www.argihizkiak.eus

TESTU LABURRA | 16-18 urte

Irati Ortueta Uriarte Algorta, 1999

ERREALITATEA ATXILOTU DUGU

Errealitatea atxilotu dugu
lau hormen artean.
Zergatik bat aukeratu,
guztiak onartu beharrean?
Ispiluko islaren itzala
jarraika ari zaigu.
Zuhaixka lore bihurtu nahian
gorriz pintatu dugu.
Errealitatea zigortu dugu
lau hormei begira.
Zergatik itxi ditugu begiak
aurrean dugunean egia?
Edertasunaren irudia,
irudiaren distortsioa.
Ez al zaigu ahaztu, bada,
lau hormetatik kanpo begiratzea?
Nola liteke guztiok
arrosa berdin ikustea?
Nola liteke guztiok
edertasuna berdin irudikatzea?



Naiara Elorriaga Lumbreras
Sopela, 1991
Sopela, 2013

TESTU LABURRA | 18+ urte

Aintzane Arrieta Gandiaga Aulesti, 1967

IHESA

«Hurrengoan hanka bionikoak margotuko dizkizut,
amama, hemendik joateko»
«Ezin dugu gainerako gaixoen gelan eduki, izualdiak
jo eta gonbituka hasten da, itotzeraino»
«Ezin dugu zahar-etxetik atera...
nola zaindu hanka biak falta ditu-eta!»
«Saiatu ginen berriro ere gainerako gelara eramaten,
baina izu-ikarak jota,
tatarrez ahalegindu zen ihes egiten»
«Zeri ihes?» «Hats itogarri bat
omen dator bere bila».
Ordutik, leiho ondoan dago
elurrari begira, lobaren zain.
«Ume, ekarri arin hankok, badator-eta».
Atea desagertu eta iluntasun astun batek hartu du
haren lekua,
kerua jasanezina da,
amamak leihoa ireki du kostata,
eta deitu: «Arin, ume, hankak».
Elurrak lotara gonbidatu du
hegoak zabalik.



Eider Moreno Carrero
Getxo, 1993
Madril, 2016ko otsaila

argi
hizki
ak²⁰¹⁷

argi



ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO TESTU LABURREN VI. LEHIAKETA **Maiatzaren 2tik 31ra**

Maila bi: 16-18 urte bitartekoena eta 18 urtetik gorakoena

Atal bi: **Testu labur-laburrena** (160 karaktere, gehienez) eta **laburrena** (100 berba, gehienez).

Testuak webgunearen bitartez helaraztea beharrezkoa da.

LEHIAKETAREN OINARRIAK ETA ARGAZKIAK IKUSTEKO:

www.argihizkiak.eus



Domekan, erabak



Maiatzaren 7an, herri-galdeketa egingo da Uribe Kostako sei herritan. Aurretiaz ere bozkatu ahal izango da.

Eguna heldu da eta dena prest dago. Maiatzaren 7an, domekan, Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz udalerrietako 16 urtetik gorako 25.508 gizon emakumek euskal estatu burujabe bateko herritarrak izan gura duen edo ez adierazi ahal izango du. Horretarako, herri-galdeketa antolatu du herriz herri Gure Esku Dago ekimenak sortu duen Uribe Kosta Ados taldeak. Azaldu dutenez, aukerako erantzunak hiru dira: bai, ez edo zuri bozkatzeari. Modu horretan, demokrazian «sakondu» gura dutela

aldarrikatu dute, «herritarren protagonismoa bultzatu nahi dugulako eta egitasmoa kolektiboen kudeaketa demokratikoa indar handiagoz sustatu nahi dugulako eskatzen dugu botoa».

Herri-galdeketa horretan antolatzaileek ez dute Estatuko zein udaletako errolda ofizialik erabiliko. Horren ordez, sistema informatiko bat erabiliko dute pertsona batek aldi bitan bozkatzeko. «Sistema informatiko horrek identifikatzailea den agiriaren zenbakia baino ez du erregistratuko», azaldu dute. Hala, behin erregistratuta dagoela, ordenagailuak ez du zenbaki hori berriro sartzen utziko, ezta sarean konektatuta dauden gainerako gailuek ere. Emaitzak aldiro argitaratuko ditu Gure Esku Dago Euskal Herriak bere webgunean. Hala, parte-hartze datuak jakinaraziko dituzte egunean zehar, eskualdekoak: 12:30ean, 17:00etan eta 20:30ean. Behin betiko emaitza orokorren jakinarazpena, berriz, 22:00ak aldera egitea aurreikusi dute. Uribe Kosta, emaitzak herriz herri emango dituzte, hautetsontziak itxi eta ordu erdira, 20:30ean. Ordu horretan bertan, Uribe Kostako Ados taldeko Batzorde

Sustatzaileak herri-galdeketa balarazioa egingo du Sopelan, udaletxearen aurreko plazan.

Luzea izan da hona iristeko bidea, eta inork ez dezan aukera galdu, aldeztu aurretik ere bozkatzeko aukera izango dute sei udalerri horietako auzokideek. Izan ere, Ados taldekoek hainbat hautetsontzi ipiniko dituzte egunotan, herriz herri eta auzoz auzo. Era berean, herri kontsultaren nondik norakoak azaltzeko eta horretan parte hartzeko beharra azaleratzeko kotxe karabana egingo dute egunean, hilaren 4an, Sopelako Arriatera hondartzako apartamentuetatik hasita. Horretarako hitzordua

arrastiko 06:00etan ipini dute, eta Barrika, Sopela eta Urduliz udalerrietatik igaroko dira.

Eguna alaitzeko egitarauak

Maiatzaren 7an, herri-galdeketa irauten duen bitartean, Ados taldekoek askotariko egitarauak antolatu dituzte egun horretarako, herriz herri. Barrikuan, gainera, hilaren 5ean, Sopelako gazteek aparteko egitaraua ere prestatu dute; iluntzeko 20:00etan poteo musikatua egingo dute kalerik kale, eta 22:00etan Sakatu elektrotarangagaz ibiliko dira udalerriko kale denak alaitzeko asmoz.

«Euskal Estatu burujabe bateko herritarra izan gura dozu?»

ADOS

Botoa emateko baliozko agiriak



Nortasun Agiri Nazionala (NAN/DNI)

Pasaporte

Euskal Herriko Nortasun Agiria (EHNA)

Beti ere errolda ziurtagiriagaz batera

Gidabaimena

Beti ere errolda ziurtagiriagaz batera

Atzeritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ/NIE)

NAN edo AIZen agertzen den bizilekua sei udalerrietako bat ez bada edo agiria iraungita badago, errolda ziurtagiria eraman beharko da. Errolda ziurtagiria lortzeko udaletxera jo daiteke, lanegunetan.

Bozkatzeko aukerak eta egitaraua herriz herri

Barrika

Non bozkatu maiatzaren 7an

09:00-20:00 Elexaldeko frontoian.

Etxean gaixo edo elbarri dauden horientzat honako telefono zenbakia eskaintzen dute: **620 912 295**

Eurakaz harremanetan ipini, lasaitasun osoz, eta etxera hurreratu dira bozkatzeko aukera izateko.

Eguneko egitaraua

Goizean zehar musika, Txopolis fanfarrearen ekimenez.

11:00-14:00 Haurrentzako puzgarria.

12:00 Aita Gotzon Abesbatzaren kontzertua.

12:30 Euskal dantzen erakustaldia.

12:30-14:00 Pintxo-pote herrikoia, Barrikako sagardoagaz.

13:00-14:00 Kontradantzak.

19:30-20:00 Oier Errementeria barrikoztar bertsolariak itxiera emango dio herri-galdeketa.

Gorliz

Non bozkatu maiatzaren 7an

09:00-20:00 Udaletxearen ondoko pilotalekuan, Eleiz plazan.

Boto aurreratua

Maiatzak 4

19:00-21:00 Udaletxearen ondoko pilotalekuan, Eleiz plazan.

Eguneko egitaraua

09:00 Txupinaren jaurtiketa eta mahaien irekiera.

12:00 Txosnaren irekiera, edariak eta pintxoak banatuko dituzte.

12:30 Harrera ekitaldia. Sei urteko haur batek adarra joz egingo du deia. Txalaparta ekitaldia egongo da, JTX taldearen ekimenez. Bertsolariak ere egongo dira (Kerman Diaz eta Unai Mendiburu) eta Plentziako Dantza Lagunak taldeak agerraldia egingo du.

Goiz osoan zehar Joseba A. Urrutia trikitilaria ibiliko da.

Umeentzako tailerrak eta karaokeak ere egongo dira.

20:00 Bozketa amaiera.

20:30 Emaitzak ematea eta amaiera ekitaldia.

kitzeko eguna

**GURE
ESKU
DAGO**



**Erabakitzeko
prest gaude.**

GABI
DE LA MAZA



**Elkarrekin
idatziko dugu
etorkizuna.**

JOSE ANGEL IRIBAR
KORTAJARENA

**Etorkizuna
elkarregaz
erabakiko dugu.**

ZELAI NIKOLAS
EZKURDIA



**Eskubide
baten alde
borrokatzen gara,
ez da
pribilegio bat**

JESUS ARZUBIAGA
BEGOÑA LEKANDA



**Orain da
momentua,
denon artean
erabaki dezagun**

EGOITZ SIERRA
URIA



**Demokrazia
besterik ez.**

ITZIAR
IRATZAGORRIA



**Ehundu,
sarea egin,
adostu,
erabaki**

JESUS CENGOTITA
BENGOA



**Nire bizitza,
nire eskubidea,
nire erabakia.**

JUNE
ANSOLEAGA



**Erabakitzea
erabaki
dut.**

EDURNE UNANUE



**Erakutsi
zeuk ere
erabaki
gura duzula.**
Bozkatu!

Lemoiz

Non bozkatu maiatzaren 7an

09:00-20:00 Armintzako arrantzaleen
kofradiaren ondoan.

Boto aurreratua

Maiatzak 4

19:00-21:00 Armintzako arrantzaleen
kofradiaren ondoan.

Eguneko egitaraua

12:00 Azoka, portuan.

12:00 Umeentzako tailerrak eta jolasak,
portuan.

13:00 Ekitaldia, portuan.

15:30 Herri bazkaria. Txartelak
maiatzaren 4ra arte egongo dira salgai,
Kaia tabernan eta Batzokian.

18:30 Pala partidak, frontoian.

20:30 Txokolate jana, portuan.

21:00 Amaiera ekitaldia, portuan.

Plentzia

Non bozkatu maiatzaren 7an

09:00-20:00 Eliz plazan.

Boto aurreratua

Maiatzak 4

19:00-21:00 Eliz plazan.

Eguneko egitaraua

09:00 Txupinaren jaurtiketa eta mahaien
irekiera.

11:30 Plentzia Kantagunearen saioa.

12:00 Uribe Kostako bertsolarien saioa.

12:25 Arkote arraun-taldearen agerraldia.

12:30 Uribe Kostako trikitilarien saioa.

13:30 Itsas-Eder dantza-taldearen saioa.

14:00 Erromeria.

17:00 Haurrentzako tailerrak.

20:00 Suziriak eta bozketaren amaiera.

20:30 Emaitzak ematea.

Egunean zehar pintxoak eta edariak
egongo dira eta txapak egiteko tailerra
egongo da.

Materiala salmentan egongo da eta
talde-graftia egingo dute.

Sopela

Non bozkatu maiatzaren 7an

09:00-20:00 Udaletxe plazan (Sopela)
eta Urgixieta plazan (Larrabasterra)

Boto aurreratua

Maiatzak 4 eta 5

12:00-13:30 eta 18:00-20:00 Bidebieta
kalean, 1.

12:00-13:30 eta 18:00-20:00 Loiola
Ander Deuna kalean, 36 (Larrabasterra).

Eguneko egitaraua

09:00 Txupinaren jaurtiketa eta mahaien
irekiera.

11:00 Tai Xi saio libre.

12:00 Joaldunak.

13:00 Ekitaldia.

18:00 Erromeria.

20:00 Hauteslekuen itxiera.

20:30 Emaitzak eta Batzorde

Sustatzailearen balorazioa.

Karpa egongo da, eta egunean zehar
artisauek, txosna, taloak eta pintxoak
egongo dira, besteak beste.

Urduliz

Non bozkatu maiatzaren 7an

09:00-20:00 Antsonekoa plazan.

Eguneko egitaraua

09:00 Mahaiaren irekiera, bertsoa eta
agurra.

11:00-14:00 Nekazarien eta artisauen
azoka eta txosna. Bertan egongo dira
zozketarako zenbakiak salgai.

12:00-14:00 Trikitilariak, herrian zehar.

12:30 Iratxo Gorria dantza-taldearen
erakustaldia.

14:30 Herri-bazkaria.

17:00 Haurrentzako jolasak eta txosna.

18:30-19:30 Txokolate banaketa.

19:30 Zozketa eta sarien banaketa.

20:00 Bozketaren amaiera.

20:30 Emaitzak ematea eta amaiera
ekitaldia.



Finalaurrekoetan ikus liteke balizko derbia, leioaztarren eta erandioztarren aurka. © LEIOA K.E.

Euskal futbol-koparen bila doaz bertoko emakumeak

Euskadiko emakumezkoen futbol-kopan lehiatuko dira Uribe Kostako hiru talde nagusiak: Bizkerre, Erandio Betiko Neskak eta Leioako Emakumeak. Bizkerre 2. Mailara igotzear geratu da. Betiko Neskak B andre eta jabe dira Bizkaian.

Domeka honetan abiatuko da Euskadiko Federakundearen Emakumezkoen Kopa. Lehiaketa horrek Uribe Kostako hiru ohiko ordezkariak izango ditu: Bizkerre, Leioako Emakumeak eta Erandio Betiko Neskak.

Bizkerrerentzat Kopa modu ona izango da Euskal Ligako arantza kentzeko. Algortarrek txapeldunorde bukatu dute, pasa den astelehenean azken partida irabazi ostean; Gasteizen jokatu zuten Aurreraren aurka eta 3 tanto sartu zizkieten. Halere, Zarautzen emaitzaren menpe zeuden eta gipuzkoarrek ez zuten hutsik egin. Hala, talde biak berdinduta geratu ziren 71

puntugaz, baina zarautzarrek gol-kopuru hobea izan dute. Zuzeneko igorarako txartela galduta, Bizkerrek zenbait konstelazio batera lerrokatzea beharko luke, Bigarren Mailara igotzeko: beste multzoren bateko talderen batek uko egitea igoyerari, Bigarren Maila berregituratzea eta abar.

Koparen aurreko fasea

Euskal federazioak egindako zozketaren arabera, eskualdeko hiru taldeek zapatu honetan ekingo diote aurreko fasea jokatzeari, partida bakarrera. Leioako Emakumeak Beasainen zelairatuko da, 18:00etan, bertako taldearen aurka. Erandioztarrek eta algor-

tarrek, oster, etxean jokatu dute. Erandio Betiko Neskak taldeak Arratia hartuko du San Lorentzon, 18:30ean, eta Bizkerre Bolue 1 zelaian lehiatuko da Pauldarrak taldearen aurka, ordu berean.

Balizko derbia

Final laurdenetara pasatuz gero, leioaztarrek Ariznabarra edo Aurrera izango lukete arerio. Bestalde, Erandio Betiko Neskak eta Bizkerreraren arteko derbia izan liteke. Final laurdenak maiatzaren 14an eta 21ean jokatu dira, joan-etorrikoan. Final aurrekoak ere joan-etorrikoan izango dira, maiatzaren 28an eta ekainaren 4an. Fina-

la, oster, ekainaren 10ean izango da, partida bakarrean, betiko legez.

Bizkaiko Kopa Erandiora

Euskadiko Kopan datorrena datorrela, Erandion pozik daude: bertako zuri-urdiak Bizkaiko Lurralde Kopa gorde ahal izango dute San Lorentzoko instalazioetan. Erandio Betiko Neskak B taldeak egin zuen balentria pasa den domekan Mungian; bertan 0-2 irabazteari esker lortutako hiru puntuek txapela eman die, matematikoki. Partida bakarra falta da, domeka honetan Ortuellaren aurka San Lorentzon jokatu dutena, 18:30ean. Hala, erandioztarrek etxean ospatuko dute garaipena. ◀



Galtza motzetan

ANA RAMOS SARRIUGARTE
Kazetaria

Aldea prezioetan ere islatzen da

Egunotan Irene Paredes legazpiarra, Realeko eta Athleticeko jokalaria izandakoa, Txapeldunen Ligako finalerdiak jokatzen ari dela gogora ekarrita, finalaren inguruko datuak begiratzen hasi ginen Ane lankidea eta biak. Finala Cardiff-en da ekainaren 1ean. Sarreraren prezioa? Helduentzako 7 euro eta erdia, 3'5 euro, gaztetxoentzat.

Bi egun geroago, ekainaren 3an, gizonezkoek jokatu dute finala, Cardiffen bertan. Prezioak? Emakumeek jokatu duten partiduari jarritakoei zero bat erantsi behar zaie ostean. Merkeenek 70 euro balio dute. Garestienek, ordea, 450. Datuak oso deigarriak dira. Lar esanguratsuak, zoritxarrez. ◀

Arenas futbol-taldea, Malawiko umeakaz

Areetako futbol-talde historikoak, Arenasek, futbol-arropa bidaliko dio Malawiko Maghemu Youth futbol-taldeari, bere kide denek jantzi ahal dezaten. Afrikako taldeak 11 eta 14 urte bitarteko umeakaz jolasten du. Iniziatiba apiril bukaeran hasi zuten, Getxoko taldearen zuzendaritzarengana heldu zen argazki bati esker.

Bertan bost ume ageri ziren, Arenaseko koloreakaz margotutako plastikozko poltsez jantzita. Klubak erabaki zuen gaztetxo gorri-beltzek arropa hobea merezi zutela, eta deialdi orokorra egin zuen umeak lokalizatzeke. Bost egun pasata, helburua lortu zuten. Daborduko, Malawiko futbol-federazioagaz lotu du Arenasek materiala umei ematea. ◀

Leioa Waterpolokoak Espainiara



Leire Fernández Askartzako igerilekuan hasi zen waterpoloan jolasten. © LEIOA WATERPOLO

Leioa Waterpoloko hiru jokalariai entrenatzen dabiltza egunotan Bartzelonako Sant Cugat del Vallès herriko errendimendu handiko zentroan. Miki Oca Espainiako selekzioaren entrenatzaileak hautatu zituen Uxue Hernández, Marta Jaime eta Leire Fernández gazte- eta kadete-mailako jokalaria leioaztarrak, Espainiako Kirol-teknifikaziorako Programaren barruan. Hirurak dira Hego Euskal Herriko ordezkari bakarrak Espainiako Igeriketa Federazioak ateratako zerrendan. Leioa Waterpolo kluba harro agertu da bere jokalaria gazteen mailagatik, eta egindako «harrobi-lan nekaezinari» egokitu dio hiru jokalariei Espainiako selekzioaren atea eta

nazioarteko partida gehiago jolasteko aukera berriro ere zabaldu izana. Izan ere, Uxue Hernándezentzat hirugarren aldia da horrelako kontzentrazioetan parte hartzen duena. Marta Jaime eta Leire Fernándezentzat, ostera, bigarren urtea da. Aurretik, Ane Jaime eta Ane García lehenengo taldeko jokalariai ere izan dira kontzentrazioetan. Kirol-elkarteak gogorarazi duenez, orain dela aste batzuk ere klub leioaztarrak hiru izendapen jaso zituen Bizkaia Kirolak sarietarako, «azken urteotan egindako oinarri-lanaren meritua aitortuta». Azkenean klubak ez zuen sari bat ere irabazi, baina izendapenek sentsazio onak utzi zituzten bai jokalarien artean eta bai zaleen artean ere. ◀

Askartza, finalen eta jaitsieren zurrunbiloan

Askartza Waterpoloko lehenengo emakumezkoen taldeak Euskal Herriko Ligaren finala jokatu du berriro ere, Iruñeko 9802 waterpolo-taldearen aurka.

Leioaztarrek balentria hori zuten dute pasa den apirilaren 23an, Leioan, Bidasoari kanporaketa 6-2 irabazita.

Bestalde, Espainiako Lehenengo Mailako Ligan hogeitau urte eman ostean, Askartzako gizonezkoen taldeak agur esan dio maila horri. Izan ere, taldeak azken aukera izan zuen jaitsiera ekiditeko, pasa den apirilaren 22an, Askartzan bertan jokaturako partidari. Etxeko zaletuen animoak jaso arren,

jokalariai ez ziren gai izan La Latina taldea gainditzeko; akats gehiegi egin zituzten. Horrenbestez, leioaztarrek galdu egin zuten partida.

Datorren denboraldian, Bigarren Mailan jokatu dute Askartzakoek, berriro lehenengo mailara bueltatzeko helburuagaz, Javi Cortés entrenatzaileak daborduko aurreratu duenez. Teknikoak Askartzan jarraituko duela baieztatu du, «inoiz baino gogo eta ilusio gehiagogaz gainera».

Klubak zale denei eskertu dizkie emandako animoak eta oinarri-kirola bultzatzen eta baloreak lantzen segitzeko konpromisoa berretsi du. ◀



Askartzako emakumezkoen talde nagusiak erronka handia du. © ASKARTZA IGERIKETA ELKARTEA

Ugeraga Eskubaloia, igoera-fasea jokatzen

Urte bi bete barik, eskarmentu ederra dauka Ugeraga Eskubaloiak. Sopelako taldea 2015eko irailaren 27an estreinatu zen, Bizkaiko Bigarren Mailan. Lehenengo aldia zen Sopelak eskubaloitalde heldu bat zeukana eta jokalariek ez zieten zaleei huts egin. Denboraldi bikain bat jolastu ondoren, hasiberriek Liga irabazi, Bizkaiko Lehenengo Mailara igo eta Bizkaiko Kopa lortu zuten. Bigarren denboraldian, zailagoa izan zuten sopeloztarrek, baina halere bigarren fasarako sailkatu ziren, hirugarren postuan geratu ostean. Hala, bigarren fasean, txapeldun titulua jaso zuten, partida



Lauko finalerako sailkatzeko gura du Ugeragak.

denak irabazita. Euskadiko Ligara igoetzeko fasean, ostera, lehenengo partidari biak galdu ditu Ugeragak: 27-25, Ordiziaren aurka; eta 22-24, Errenteriarren kontra. Beste hiru partida dituzte aurretik, sailkatu ahal izateko. ◀

Berangoko Eskubaloia, gorenean

Euskadiko maila gorenera igo zen Berango Eskubaloien senior taldea, Euskal Ligaren A multzora. Uribe Kostako emakumeak txapeldunorde izan ziren, denboraldi osoan Ermuko Errotabarri taldeagaz parekatuta ibili ostean. Ermukoek puntu biko alde atera zioten Berangori lehenengo fasean, eta bigarrenengan, ostera, berdinduta amaitu zuten, baina sartutako tantoengatik txapela jantzi zuten Durangaldekoek. Berangoko klubak azaldu duenez, azken partida «zoragarria» izan zen: Zarauzko kiroldegia beteta, Uribe Eskubaloien Eskolak merezitako omenaldia egin zuten Berangoko jokalariei. ◀

Getxoko Karate Taldea ederto Estatuko Ligan

Pasa den apirilaren 22an, Isan Getxo Karate Klubeko kideek erakutsi zuten, berriro ere, badirela nor borroka-arteetan. Getxoaztarrek taldekako 7. lekua lortu zuten Estatu espainiarreko Ligaren lehenengo fasean, kadete, gazte eta 21 urtez azpiko mailan. Gainera, lau domina jantzi zituzten. Xabier Peredak urrezkoa eskuratu zuen 21 urtez azpiko Katan. Sara Pablosek, ostera, zilarrezkoa lortu zuen gazteen Kata proban. Azkenik, Paula Alkaldek eta Ane Calventek brontzezko bana irabazi zuten; Alcalde 21 urtez azpiko Katan lehiatu zen eta Calvente maila bereko Kumiten, 68 kiloz gorako mailan. ◀



Ez da ikastarorik egongo uztailaren 15ean eta 31n, ezta abuztuaren 15ean ere. © GETXOKO UDALA

Kirol-ikastaroak, udan

Getxoko udako kirol-ikastaroetan izena eman daiteke daborduko. Getxo Kirolak udal-erakundeak 1.700 leku baino gehiago eskainiko dizkie abonatuari, udarako.

Udako ikastaroak uztailaren eta abuztuaren egingo ditu Getxo Kirolak udal erakundeak. Programazioaren barnean, tenis-, padel-, futbol- eta igeriketa-ikastaroez gainera, umeentzako kirol-jarduerak ere izango dira. Iaz legez, umeentzako aisiako azken ikastaroetan egunero ordu bat ingelesez egingo

da neska-mutilakaz, eta umeak zaintzeko zerbitzua egongo da ere. Zerbitzu hori jarduera baino ordu erdi lehenago hasi eta bukatu ondoren ordu erdi beranduagora arte egongo da zabalik. Gainera, kirolen udal-erakundeak Kirolak@n ikastaroa antolatuko du, Gobelan eta Faduran, 10 eta 14 urte bitartekoentzat. Ikastaro horrek askotariko

kirol-jarduerak izango ditu eta nerabezaroan jarduera fisikoa praktikatzeko du helburu. Nobedade gisa, Getxo Futbol Eskolak (Faduran) eta Romo eta Arenas klubek (Gobelan) *futboleando* izeneko ikastaroak emango dituzte.

Maiatzaren 10era arte aurkez daitezke eskaerak Faduran eta Gobelan herritarrak artatzeko dauden bulegoetan edo udal-webgunearen bitartez. Izapidea online egiteko, NAN elektronikoa edo norberaren sarbide-gakoa beharrezkoak dira; azken hori kiroldegietako bulegoetan eskatu beha-

rra dago, asteko edozein egunetan, 08:00etatik 21:30era. Online sarbide-gakoagaz, instalazioak erreserbatu ahal izateaz gainera, kirol-ikastaroetan altak eta bajak kudeatu ahal izango dira deialdi denetan (udako ikastaroak eta denboraldiko ikastaroak).

Maiatzaren 12an zozketaren emaitza argitaratuko da udal-webgunean eta Fadurako eta Gobelako informazio-tauletan. Plazak automatikoki esleitu-ko dira eta, eskaera dagoen bitartean, pertsona bakoitzak soilik ikastaro batean izena eman ahal izango du. Ondoren, leku-kopuru librearekin geratuz gero, esleipen-sistemak prozedura errepikatuko du, eta pertsona bakoitzeko hiru ikastaro esleitu ahal izango dira. Maiatzaren 12tik 18ra, erreklamazioak, bajak eta ordutegi-aldaketak egiteko epea izango da. Maiatzaren 19tik aurrera eskaintza osatu arte dau den leku-kopuruak eskainiko dira.

Tenis, padel eta igeriketako has-tapen baino maila altuagoetan izena emateko, beharrezkoa izango da maila hori ziurtatzea izena emateko unean. Horretarako, Kirol Arloagaz harremanetan ipini beharra dago.

Futboleando ikastaroen kasuan, izen-emateak elkartekaz zuzenean egingo dira. Fadurakoan parte hartzeko Getxo Futbol Eskolagaz harremanetan ipin daiteke; eta Gobelakoan, Arenas eta Romo klubakaz. ◀

info+: Getxokirolak.getxo.eus

coordinador.getxofutboleskola@gmail.com

arenasromocampus@gmail.com / 657 268 606

Lointek, Ugeraga eta Bioracer, garaiezinak

Burgosko Vuelta irabazi zuten Uribe Kostako taldeek, pasa den aste-akabuan. Elite eta 23 urtez azpiko maila bateratuan, Lointek Team-eko Eider Merinok lortu zuen sailkapen nagusiko maillot morea; Merinok abantaila handia atera zien Bizkaia-Durango taldeko arerioei: 01.13 Femke Verstichelen-i eta 01.47 Roos Hoogeboom-i. Gainera, Lointek hiru etapetatik bi irabazi zituen: Villasana de Menakoa, Merinok berak lortutakoa, eta Villarcayokoa, Alicia Gonzálezek. Sopela-Ugeraga taldeak ere ospatu zuen garaipena Villarcayon, Sara Martínek gazteen sailkapeneko buru amaitu baitzuen Vuelta, ezinbestean; Arandakoak hiru etapak irabazi zituen. Modu berean, Sopela-Ugeragako txirrindulariek Burgosko txapel-dun titulua ere lortu zuten; Martínek gazte-mailan eta Lorena de la Fuentek kadeteetan. Aurreko aste-akabuan ere ondo ibili ziren eskualdeko txirrindulari-taldeak. Hala, Euskaldun Txapel-



Barrundiako podiuma. © LOINTEK TEAM

ketako Barrundiako (Araba) etapan, Lointekek podiuma osatu zuen; Alba Teruelek irabazi zuen, eta Merino eta Beatriz Gómez alboan izan zituen. Sara Martín Barrundiako gazteen kategorian nagusitu zen, eta Bioracer taldeko María Brizuela bigarrena izan zen, kadete-mailan. Busturian, oster, Alicia Gonzálezek irabazi zuen Euskalduneko etapa Lointekentzat. Sandra Alonso (Bioracer) hirugarren sailkatu zen kadete-mailan. Kategoría horretan, Sopela-Ugeragak irabazi zuen taldekakoa eta Bioracer bigarren izan zen. ◀

Fernando Astorki klasika, zapatuan

Zapatuan, hilaren 6an, Fernando Astorki proba zikloturista egingo da, Leioan. Klasika horregaz gorazarre egiten diote Espainiako Vuel-tan 25 urtez medikua izan zen Astorki. Ohi legez, proba antolatuko dute Txori-Erri txirrindularitza-elkartek eta Leioako Udal Kirol Instalazioak

erakundeak. Sakoneta kiroldegitik 09:30ean abiatuta, 95 kilometro beteko dituzte parte-hartzaileek, Bizkaian barrena, 13:00ak aldera leku berean amaitzeko. Gosaria, elikatzeko anoa-postuak ibilbidean eta hainbat sari emango dituzte. Izen-ematea probaren egunetan bertan egin daiteke. ◀

Elkar Kirolak eskolaren taldeak aurkeztu dituzte

Elkar Kirolak txirrindularitza-eskolako familiak bere 98 txirrindulariak aurkeztu zituen pasa den barikuan, Leioako Mendibile jauregian. Saioa Gil izan zen protagonista, txirrindularitzara bueltatuta. Berango, Erandio eta Leioako udalen ordezkariak parte hartu zuten ekitaldian, hiru udalek sustatzen baitute eskola. ◀



Eneritz Iturriagak zuzentzen ditu emakumezkoak.

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Sopelako Oinutsik zentroari esker, kiropodia-saio bat zozkatuko dugu

Podologia saioa lortu gura baduzu, maiatzaren 10a (eguztzena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Maiatzeko saria
«Akabuko martxea» eta «Dominica» DVDak



Hilabete honetako sari hori HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean zozkatuko dugu. Zozketan parte hartzeko, bidali maiatzaren 31 (eguztzena) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Zerbitzuak

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

			5	8	2			
6								
	7	5				3		
	6				7	1		2
	1				5	6		
				4			8	
			1		8	7	3	
	8	2						
		9		6				

Soluzioa

5	2	8	7	9	1	6	3	1
9	1	7	6	5	3	2	8	7
6	3	7	8	2	1	9	5	4
3	8	5	1	7	9	2	7	6
7	2	9	5	6	2	3	1	8
2	6	1	2	3	8	7	9	5
8	7	3	9	1	6	5	2	7
1	5	2	3	7	7	8	6	9
2	9	6	2	8	5	1	7	3

+ Guardiako farmaziak, hilaren 4tik 10era

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00 ; egunean eta martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

GARCIA. José Luis Goioaga et., 25. ALTZAGA. 944 671 496. Zapatuan, 09:00-14:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekan, 22:00-09:00.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

BARRENECHEA. Alango, 7. ALGORTA. 944 600 043. Domekan, 09:00-13:30.

ESQUISABEL. Algortako Etorb., 32. ALGORTA. 944 602 529. Egunean, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunean, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunean, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ABERASTURI. Maidagan, 21. GETXO. 944 300 796. Domekan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO.

944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Astelehenean, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunean, 09:00-22:00.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00. Astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013. Eguztzena, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik eguneko 09:00ak arte.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00; domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.



Liburua argitaratzeaz gainera, Basozaleak elkarteak jardunaldi botanikoak eta mikologikoak egiten ditu urtero, maiatzean eta urrian, hurrenez hurren. © BASOZALEAK

Basozaleak, elkarte mikologikoa eta botanikoa Perretxiko eta land

Gida mikologiko eta botanikoa kaleratu du Getxoko Basozaleak elkarteak. Horren helburua da gure inguruko 79 perretxiko- eta 71 landare-espezie nagusiak ezagutzera ematea.

IKER RINCON MORENO



Zumezko saskia hartuta, mendiko botak jantzi eta perretxiko bila joatea ohikoa da inguruotan. Urte osoan egoten da aukera perretxikoak eta onddoak batzeko; hala ere, udaren akabuan eta udagoienaren hasieran joaten da jende gehien basoetara aleen bila. Euskal Herrian eta Uribe Kostan askotariko espezieak aurki daitezke, jangarriak zein hilgarriak. Getxoko Basozaleak Elkarte Mikologiko eta Botanikoak azaldu duenez, «batzuetan, lekuan bertan argitu behar izaten da espezie bat toxikoa den edo ez, lurretik batu baino lehen». Hori dela eta, askotariko espezieak batzen dituen liburu bat argitaratu dute, «mendira eramateko formatu egokia izan dezan kontutuan hartuta». Gida horretan, Euskal Herriko eta inguruotako 79 perretxiko mota bildu dituzte, baita 71 landare ere.

Espezie denak 5 mailatan katalogatu dituzte liburuan: jangarriak, hilgarriak, toxikoak, susmagarriak eta sendabelarrak. Izan ere, Basozaleak elkarteko kideek gogoratu dutenez, ezagutzen ez den espeziaren bat jan aurretik, kalte larriak saiheste aldera, go-

mendagarria da dokumentazioa kontsultatzea, «eta, hori eginda ere zalantzan jarraituz gero, adituei galdetu beharko litzateke. Gogoratu beharra dago perretxiko eta landare guztiak jan egiten direla, baina

Perretxikoren bat jan aurretik, gomendagarria da dokumentazioa kontsultatzea, eta zalantzan jarraituz gero, adituei galdetzea

batzuk behin baino ez». Hori dela eta, Basozaleak elkarteak liburu horren 1.000 ale kaleratu ditu; gura duenak gida hori eros dezake Algortako Aldai Patronatuan duten bulegoan, 5 euroren truke (kideek 3 euroan eskuratu ahal izango dute): «gure helburua da jendeak gida hau erabiltzea. Liburu praktikoa da, mendira eramatekoa». Era berean, azaldu dutenez, elkarteak bulegoko ateak zabalik ditu interesa

duen edonork edozein galdera egiteko, astelehen eta eguenetan, 19:00etatik 20:30era.

Liburuan 150 espezie agertzen dira. Era berean, perretxikoak eta landareak batzeko hainbat gomendio ematen dituzte adituek. Hala, perretxikoen kasuan, ziur ez gaudenean, horien oina ez moztea aholkatzen dute, horiek funtsezkoak direlako zenbait espezie identifikatzeko. «Halakoetan okertzea hilgarria gerta daiteke. Adibidez, oina moztzen baduzu, *Amanita phalloides* bat (Hiltzaille berdea, hilgarria) *Russula virescens* bat (Gibelurdina, erabat jangarria) dela pentsa daiteke». Landareak batzerako orduan ere kontsumitu gura den espeziea «ziurtasunez» identifikatu beharra dagoela aholkatzen dute: «zalantzarik txikiena baduzu ere, hobe da gai horren inguruko aditu bati galdetzea, edo bestela ez hartu; landare batzuk oso pozoitsuak izan daitezke». Azaldu dutenez, zenbait landarek gure osasunari kalte egin diezaioketen substantziak dituzte, hala nola nitratoa, oxalatoa eta saponinak. Era berean, kutsatuta egon daitezkeen eremuetatik landarerik hartu beharra ez dagoela gogoratu dute, «lurrean dauden substantzia toxikoak xurgatu ahal dituztelako».

Istripuak landare eta perretxikoakaz

Angel Asensio Basozaleak elkarteko presidentek eta Enrique Elexpuru elkarteko kidea eta botanikan adituak diotenez, Uribe Kostan askotariko perretxikoak eta landareak aurki daitezke. Perretxikoen artean, onddoak dira nagusi, «aniztasun handia dago».



Hala ere, horiek batzerako orduan kontu handiz ibiltzea gomendatzen dute. «Ez da edozer gauza hartu behar, oso arriskutsua da», aitortu du Asensiok. Denen artean, Hiltzaile berdea (*Amanita phalloides*) da arriskutsuena, «hori jan eta ondorioak 15 egunera nabaritzen dituzu. Ohikoena da zirrosia eragitea», ohartarazi du. Beste batzuk, ordea, toxikoak izan arren, beherakoa edo kakapirria baino ez dute eragiten, barbarako, Azpibeltz tinta-sain-argia (*Agaricus xanthodermus*). Azken horregaz, azaldu dutenez, ohikoa da bestelako *Agaricus* familiako onddoakaz nahastea, hala nola Barrengorria (*Agaricus campestris*). «Dena dela, horiek biak nahastu arren, kozinatuz gero Azpibeltzak berak abisua emango du, usain oso txarra botatzen duelako egosterako orduan», azaldu du Asensiok. Inguruotan onak ere badaude, hala nola Onddobeltza (*Boletus aereus*), pinudietan; eta Galanpernak (*Macrolepiota procera*).

Landareei dagokienez, aniztasun handia dago gure eskualdean. «Interesanteenak orkideak dira, askotarikoak ditugu inguruotan», iragarri du Elexpuruk. Dioenez, kostaldean hainbat aurki daitezke, «bertan bakarrik agertzen direnak». Izan ere, kostaldeko haizeek lurrunketa handiagoa eragiten dute, «klima mediterraneoagoa eraginda». Hori dela eta, ohikoa da Galea eta Billano lurmutur inguruetan Mediterraneo aldean ager daitezkeen landareak aurkitzea, hala nola Sugegorri-belarra (*Echium vul-*

gare) eta Txilar burusoila (*Erica vagans*). Gurean askotariko landaredia dago, toxikoa, jangarria zein medizinala. Elexpururen arabera, azken urteotan ez da ohikoa jateko landareak batzen ibiltzea; hala ere, aitortzen du badaudela batzuk oso onuragarriak direnak jendearentzat, barbarako, Asuna (*Urtica dioica*), Intsusa (*Sambucus nigra*) eta Azeri-buztana (*Equisetum telmateia*). Bestalde, badaude toxikoak direnak ere. Elexpuruk gogora ekarri duenez, azkenaldian arazoak egon dira Estramonioagaz (*Datura stramonium*), hori erabilia drogatzan direnak egon badaudelako. Gainera, botanikan adituak azaldu du landare horiek kontsumi-

Perretxikoak eta landareak batzerako orduan istripuak gerta daitezke, espezieen arteko antzekotasunak ematen direlako

tzea errusiar erruletan jolastearen antzerakoa dela, «bizitzaren eta heriotzaren arteko aldea oso fina da landare horrekaz. Izan ere, klimak eragin handia du landareek duten toxikotasunean; klima lehorretan toxikoagoak izaten dira hezeetan baino». Jangarriak direnen kasuan, arazoak eman daitezke baita ere. Iturri-belarra (*Nasturtium officinale*) ipini du adibidez, «askotan oso toxikoa den Deabruaren arbiagaz (*Oenathe crocata*) nahasten delako». ◀

Perretxikoak

Jangarriak



Onddo beltza *Boletus aereus*



Galanperna *Macrolepiota procera*

Toxikoak



Azpibeltz tinta-sain-argia *Agaricus xanthodermus*



Satan onddo *Boletus satanas*

areen erakusleihoa

Landareak

Jangarriak edo medizinalak



Sorgin belarra *Taraxacum officinale*



Intsusa beltza *Sambucus nigra*

Toxikoak



Kukupraka *Digitalis purpurea*



Otsababa emea *Helleborus viridis*



Sukaldean

Bakailaoa pil-pilean, 40 urtez arrakastatsu



OSAGAIK:

Bakailaoa, olio, baratxuria eta pipermina.

GURE ETXEA TABERNA

Caja de ahorros kalea 14, Getxo
 Tel. 685 754 521

Zoragarriak dira tabernetako giroak eguerdian, eta are gehiago bertan jendeaz gainera sukaldeko usainak eta zaporeak nagusi badira. Erromoko Gure Etxea tabernak osagarri horiek dauzka. 40. urteurrena ospatzen dabil aurren Joseba Andoni Irustaren taberna, eta jatetxeko menuan badago lau hamarkada hauetan sekula falta izan ez den plater bat: Bakailaoa pil-pilean. Euskal sukaldaritzako erreferentia da itsasotik datorren altxor hori, eta bakailaoa bezalako plater arrakastatsuak gustatzen zaizkio sukaldariari.

Bakailaoa pil-pilean prestatzeko ez dugu osagarri ezohikorik beharko. Hala ere, osagarri horiek, bakailaoa bereziki, ezin da edozelangoa izan, horrek az-

ken emaitza baldintzatuko baitu. Baratxuriak olioan konfitatzen ditu Josebak, olioak baratxuriaren zaporea har dezan. Olio epeldu delarik, su ertaina piztu eta bakailaoa gehitzen dio sukaldariak. Orduan dator plater honen prestaketako klimaxa: kazola mugitu behar da, astiro-astiro eta etengabe. Horrela, bakailaoaren gelatina irteten da, olioagaz batera pil-pila sortuz.

Platerean, margolana dirudi bakailaoa pil-pil eran. Ahoan, zapore leunekoa bada ere, baratxuriak kontrastea ematen dio arrainari, eta azken momentuan piperminaren ukitua nabaritzen da. Dastatzean konturatu gara, kartatik plater hori ordezkatzeari ezinezkoa litzatekeela, pentsatzea ere! ◀

faceguk



Zer ipiniko zenuke erre ziren Errekaganeko pabiloietan?

HECTOR DíEZ MARÍN
 ITZUBALTZETA/ROMO



Denok erabiltzeko zerbait ipini beharko lukete, herritar guztiontzako zerbitzuren bat. Kiroldegi bat ez, hor ondoan dagoelako, baina ludotekaren bat edo horrelako zer edo zer ondo egongo litzake.

AURORA MOMEÑE
 BILBO



Denontzako kontu sozialen bat, adibidez, nagusiek bertan arrastia eman ahal izan dezaten, batez ere, bakarrik dagoen jendeari laguntzeko. Kultur ikastaroak ere ipin litezke: pintura, artea, historia...

MADALENA RENTERIA GAUBEKA
 ITZUBALTZETA/ROMO



Bertan gaztetxe bat ipiniko nuke, gazteak pabiloi horietan egon daitezten. Orain arte ez diote inori enbarazurik egin eta, nire ustez, lursail horretarako hoberena litza-teke gazteak hor egotea.

ITZIAR AXPE
 ITZUBALTZETA/ROMO



Gazteentzako espazio publiko bat, Etxe Merkeetan egon beharrean han egon daitezten, pabiloi egoki eta garbi batzuetan. Gainera, horregaz batera, eurentzako parke-toxa ere egingo nuke.

AIORA CORTÉS URRUTIKOETXEA
 ITZUBALTZETA/ROMO



Zeozter gazteentzat, 12 urtetik 40 edo 50era arte, bertan tailerrak eta esku-lanak egin ditzaten eta horiek erakusteko eta saltzeko aukera izan dezaten. Handia izango denez, rokodromoa ere ipiniko nuke.

GALDER NOVO AZURMENDI
 ITZUBALTZETA/ROMO



Kultur etxeko moduko bat egin beharko lukete, gazteek kudeatuta eta eragileak kontuan izanda, Itzubaltxiki adibidez. Gazte asko daude herrian gogoz, baina Etxe Merkeetan ezin dute ezer egin.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua